

**2021EKO IRAILAREN 09AN EGINDAKO
EZ - OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Gorka Murua Macuso

Zinegotziak

Noelia Lataburu Ortiz
Mikel Iturbe Saizar
Olaia Nieto Legarra
Leticia Aristi Oria
Ana Jesus Leunda Gurrutxaga
Jose Ramón Epelde Irizar
María Cristina Santos San Sebastian
Marta Castrillo Iturralde

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Arratsaldeko 19:30etan batzarrari hasiera eman zaio.

Iruran, 2021eko irailaren 9an arratsaldeko 19:30etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Irurako Udaleko EZ OHIKO Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bilera, publikoari itxita izango da, nahiz eta edozein herritarrek eskubidea izan bileraren akta eta audio grabazio eskuratzeko.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Gorka Murua Macuso izan da Batzarburua.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:

*** 2021/07/27KO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.**

Zinegotziek bere aldeko onarpena eman diote aktari.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2021EKO UZTAILAREN 21ETIK IRAILAREN 1ERA (2021/184 - 2021/227).

Alkatetzak 2021eko uztailaren 21etik irailaren 1era bitartean (2021/184-2021/227) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- UDAL-ERAIKINEAN ZERBITZU ANITZETARAKO ESPAZIOAK BIRGAITZEKO ETA EGOKITZEKO BALDINTZAK ONARTZEA.

Gorka Alkateak hartu du hitza, hainbat batzarretan hitz egin den gaia dela eta proiektua egiten hasi zenetik denbora pixkat igaro dela eta, tarte honetan energia berriztagarriak eta murrizketa dela eta, hirigintzako kodigo teknikoa aldatu direla. Aldaketa horiek proiektua modifikatzea ekarri dute, Xabier Barrutietak eginiko proiektua moldatu behar izan du eta aldi berean energiari buruzko azterketa egiteko eskatuta zegoen ingenieritza empresak ere.

Energia sistemak hobetze aldera (kalefazio, klimatizazio eta argiteria) ingenieritza empresak emandako aukera hoberenak aukeratu ditugu.

Halaber, proiektu hau, hainbat dirulaguntzetara aurkeztu dugu eta denek azpimarratzen duten irizpidea energia kontsumoaren %30 gutxienez jexiera izan behar dela, Irurako udalak gutxienez baldintza horiek bete behar ditu.

Alkateak jarraitu du kontratazioaren prozesura zein den azaltzen eta zein irizpide erabiliko diren lizitatzailen aukeraketa egiteko.

Azalpen horiek eman ondoren, Ana EAJko zinegotziak hartu du hitza eta horrela azaldu du beraien taldeko iritzia:

-Ez ohiko bilkura horretan, udal eraikina eraberritzeko baldintzak onartzen ari gara.

-Udal honek egin duen obrarik haundienetakoa izano da, aurreko legealditik datorren proiektua da. Gu, Gobernuan geundela hasitako ideia da, eraberritzeko beharra ikusi genuelako, proiektua eginda utzi genuen, 2019ko apirilko datarekin egina.

-Naiz eta kritika ugari jaso EHBildutik, *kristonak eta bi* esan zenituzten, oztopo pila bat jari... eta begira nola diran gauzak, orain gure proiektua egingo duzue, 3^o planta eman ez eta atzeko plazara zabalduaz, aldaketa batzuekin, material batzuk aldatuz, energiari buruz legea aldatu eta hala eskatzen duelako, horma zabaldu eta abar, baina gure proiektua eredu hartuta.

Gure aldetik, hobekuntzak egiten badira, ba, ondo, denon onurako izango direlako.

-EAJ-PNVtik adierazi nahi degu, harro eta pozik sentitzen garela, gure proiektua egingo dalako, naiz eta zuentzat "faraonikoa" izan orain dala gutxi arte.

Alkateak, jarraian, adierazi du, ez direla proiektuaren aurka egon, baizik eta gobernantza ereduaren aurka. Partehartze prozesu egin zutela baina, EAJk egin zuen prozesua ez zela partehartzailea izan, adierazi du Gorkak.

Beraiek partehartu, hitz egin, eztabaidatu eta adostearen aldekoak direla.

Herritarrek aukeratu behar zutela proiektua eta ez udal gobernuak, eta beraiek hori egin dutela, herriari entzun.

Bukatzeke, EAJ harro sentitzen bada proiektu honekiko, EHBildu ere oso harro sentitzen dela proiektuarekiko eta poza hartzen duela DENAK harro sentitzen direlako.

Gaia bozkatu da, AHO BATEZ onartu da: 5 bozka Eh Bilduko zinegotziek, eta EAJko 4 zinegotziek.

Administrazio baldintza partikularren agiria onartua geratu da.

KONTRATU MOTA: OBRAK

PROZEDURA: IREKI SINPLIFIKATUA

ERREGULAZIO BATERATUARI LOTUTAKO KONTRATUA: EZ

ERREKURTSO BEREZIARI LOTUTAKO KONTRATUA: EZ

IZAPIDE ARRUNTA.

ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN AGIRIA

1. KAPITULUA – XEDAPEN OROKORRAK

1.-Kontratuaren xedea

Kontratuaren xedea UDAL-ERAIKINEAN ZERBITZU ANITZETARAKO ESPAZIOAK BIRGAITZEA ETA EGOKITZEA da.

Kontratuen Hiztegi Arruntaren (KHA) nomenklaturari dagokion kodetzea 45000000-7 eraikuntza lanak.

Kontratuaren kalifikazioa, obra kontrato administratiboa da eta, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, Espainiako ordenamendu juridikora Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB direktiben transposizioa egiten duenak, aurreikusitako kasuetan izapidetu ahal da.

2.- Kontratuarekin bete beharreko administrazio-beharrak

Kontratu honek proiektuan deskribatzen diren beharrak asetzea du xede.

3.-Lizitazio-oinarriaren aurrekontua

Kontratuaren lizitazio-oinarriaren aurrekontua: 1.314.266,26 €
% 21 BEZ= 228.095,80 €

EGIKARITZE MATERIALA, GUZTIRA..... 912.748,28€
Gastu orokorrak eta onura industrialak (% 13+% 6)..... 173.422,18€

KONTRATAREN AURREKONTUA GUZTIRA..... 1.314.266,26€
% 21 BEZ..... 228.095,80€

AURREKONTU OROKORRA GUZTIRA.....1.314.266,26€

4.-Kontratuaren balio estimatua 1.086.170,46 €

5.-Obra gauzatzeko epea eta tokia

- 1.-Obra egikaritzeko epea 14 hilabetetakoa izango da.
- 2.-Eraikuntza, Irurako udalerriko San Migel Plaza 1 zk.an kokatua dago.

6.-Kontratuaren prezioa

Kontratuaren prezioa adjudikazioan jarriko da eta BEZ partida independente gisa

adieraziko da. Iritziko zaio kontratuaren prezioak barne hartzen dituela aplikatu beharreko tributuak, tasak eta kanonak, bai eta agiri honetan aurreikusten diren betebeharrak betetzeak adjudikaziodunari dakarzkion gastu guztiak ere.

7.-Kreditua izatea

Kreditu egokia eta nahikoa dago burutu beharreko kontratuaren gehieneko gastuari aurre egiteko.

Kontratuko gastuaren aurrekontua partida honen kargura aplikatuko da:
1 0000.622.920.00.00 (2021) ERAIKINAK. ADM OROKORRA.

2021eko udal-aurrekontua aplikatzean, ordainketak egiteko kreditu nahikoa dago. Era berean, Udalak konpromisoa hartzen du datorren ekitaldiko aurrekontuan kreditu nahikoa izateko.

8. Ordaintzeko modua

Kontratuaren prezioa ordainduko da obrak amaitzen direnean. Aurrez, ordea, faktura aurkeztu beharko da, arduradunak aztertuta eta egiaztatuta, eta, hala badagokio, organo eskudunak onartutakoa.

Faktura onartutakoan Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutako epean ordainduko da.

Enpresa kontratistak faktura elektronikoa aurkeztuko du Gipuzkoako Fakturen Sarrera Puntu Orokorraren bitartez (<https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua>), Aurrekontua Egikaritzeko Udal Araua eta faktura elektronikoa sustatzeari eta fakturen kontabilitate-erregistroa Sektore Publikoan sortzeari buruzko abenduaren 27ko 25/2013 Legea betez.

Unitate organikoen DIR3 kodeak:

1. Kontabilitateko bulegoa: LO1200467
2. Kudeaketa-organoa: LO1200467
3. Izapidetze-unitatea: LO1200467

9.-Prezioak berrikustea

Ez dira prezioak berrikusiko.

10.-Kontratatzailearen profila

1.-Kontratuari buruzko informazioa kontratatzailearen profilean argitaratuko da, helbide honetan: <https://www.contratacion.euskadi.eus/w32-kpehome/eu/>

2.-Herri-administrazioetako kontratuak adjudikatzeko lizitazioa kontratatzailearen profileen argitaratuko da.

3.-Kontratatzailearen profileen argitaratuko dira kontratuaren lizitazioari buruzko informazioa, administrazio-baldintza partikularren agiriak eta, hala badagokio, dokumentazio osagarria.

11.-Informazioa arlo hauetan: zergak, ingurumena, emakumeen eta gizonen berdintasuna, hizkuntza-berdintasuna, laneko babesa, lan-baldintzak, lan-arriskuen prebentzioa eta datuen babesa.

Arlo desberdinetako betebeharreri eta xedapenei buruzko informazioa lor daiteke erakunde hauetan:

- Zerga-sistema: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentua eta gainontzeko Zerga Administrazioak.
- Laneko babesa, lan-baldintzak eta lan-arriskuen prebentzioa eta desgaitasuna duten pertsonen txertatze soziolaborala: Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Justizia Saileko Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritza.
- Emakumeen eta gizonen berdintasuna: EMAKUNDE – Emakumearen Euskal Erakunde autonomoa.
- Hizkuntza-berdintasuna: Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako sailburuordetza.
- Ingurumenaren babesa: IHOBE sozietate publikoa.
- Datu pertsonalak babestea: Datuak Babesteko Euskal Agentzia.

12.-Kontratuaren araubide juridikoa eta administrazioaren eskumenak.

1. SPKLren 25. artikulua arabera, kontratu honek izaera administratiboa du.
2. Adjudikaziodunak, adostasunaren seinale, kontratua formalizatzearekin batera administrazio-baldintza partikularren agiria sinatu behar du, kontratu-izaera baitu.
3. Agirietan aurreikusten ez denerako, kontratua lege hauen pean arautuko da: SPKL, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuari buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batez garatzen duena eta Herri Administrazioen *Kontratuari buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra (HAKLAO)*, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartutakoa, aurreko guztiari kontra egiten ez badio. Eta, horiez gain, Euskal Autonomia Erkidegoan (3/2016 Legea, apirilaren 7koa, zenbait klausula sozial kontratazio publikoan sartzekoa) eta Gipuzkoako Foru Aldundian kontratazioa erregulatzen duten beste xedapenak bete beharko ditu. Arau horiek guztiak aplikatuko dira baldin eta SPKLaren xedapen indargabetzaileak eragiten ez badie.
4. Edonola ere, lehen aipatutako lege- eta erregelamendu-arauak aplikatuko dira SPKLri kontra egiten ez badiote.
5. Behar izanez gero, zuzenbide administratiboko eta, hala badagokio, zuzenbide pribatuko gainontzeko arauak aplikatuko dira.

6. Administrazio-baldintza partikularren agiriaren eta kontratuko beste agirien artean desadostasunik badago, lehena nagusituko da.
7. Adjudikaziodunak kontratuaren klausulak (edozein terminotan), bestelako agiriak eta hitzartutakoa aurrera eramateko jarraibideak edo araudia ez ezagutzeak ez du horiek betetzeko erantzukizunetik salbuesten.
8. SPKLren 190. artikulua araber, Kontratazio Organoak eskumena du administrazio-kontratuak interpretatzeko eta hura betetzean sor daitezkeen zalantzak argitzeko. Halaber, kontratuak alde bakarretik aldatzeko eta suntsitzeko eskubidea du, muga barruan eta SPKLren baldintzak eta ondorioak eta haren garapeneko xedapenak betez.
9. SPKLren 191. artikulua eta *HAKLAO*ren 97. artikulua araber, Irurako Udalak ebatziko ditu kontratua aplikatzeko edo interpretatzeko, egikaritzeko, betetzeko edo suntsiarazteko sor daitezkeen auzigaiak, kontratatari entzun eta gero, eta hartutako erabakiak berehala betearaziko dira.
10. Beste ezer adierazi ezean, prozedura interesatuak eskatuta hasten denean eta diru-kopuruak erreklamatzeko, administrazio-eskumenak gauzatzea edo administrazio-kontratuak egikaritzea, burutzea edo iraungitzea xede duenean, eskaerari erantzuteko epemugan jakinarazpenik ez badago, administrazioaren isiltasunagatik uko egin zaiola iritziko zaio; dena dela, eskaerari erantzuteko obligazioak iraun dezake.

13.-Errekurtsoen erregimena

Kontratazio Organoaren erabakien kontra ohiko errekurtsoak jar daitezke, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legea eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legea betez.

II. KAPITULUA – KONTRATAZIOA

14.-Espediente-mota eta lizitazio-modua

Kontratazio-espedientearen izapidetzea ohikoa izango da eta kontratua prozedura ireki sinplifikatu bidez adjudikatuko da.

15.-Pertsona natural edo juridiko lizitazaileak

1. Administrazioarekin kontratatu ahal izango dute pertsona natural edo juridikoek, espainiar zein atzerritarrek, baldin eta jarduteko erabateko gaitasuna badute, kontratatze inolako galarazpenik eragiten ez badie, eta kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionala egiaztatzen badute. Kaudimen ekonomiko-finantzarioa egiaztatze arrisku profesionalen kalte-ordainetarako 600.000 €-ko edo gehiagoko erantzukizun zibileko aseguruaren frogagiria aurkeztuko da.

Kaudimen tekniko-profesionala egiaztatze kontratu honen xede diren izaera berdineko edo antzeko lan nagusien zerrenda aurkeztu behar da, azken bost urteetako gehienez, eta zenbatekoa, data eta hartzaile publikoa edo pribatua den adierazi.

Kontratuaren balio zenbatetsia kontuan hartuta, ezinbesteko baldintza izango da lizitazaileak honako sailkapen hauek izatea (guztiak) SPKLko 77art.

TALDEA AZPITALDEA KATEGORIA

C taldea.- eraikinak

Azpitaldea: 2.- fabrikako edo hormigoizko egiturak.

Kategoria: 4.- >840.000 <2.400.000

2. SPKLren 71.artikuluari jarraikiz, lizitazaileek ezingo dute kontratatze debekurik izan proposamenak aurkezteko epemugan. Ezta kontratua adjudikatzen denean ere.
3. Lizitazaileek kontratuaren xede diren prestazioak burutzeko gaitasun enpresariala edo profesionala eduki beharko dute. Lizitazaileak Sektore Publikoko Lizitazaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo dagokion Autonomia Erkidegoaren Erregistro Ofizialean inskribatuta egon behar dira.
4. Pertsona juridikoak kontratuen adjudikaziodunak izango dira baldin eta prestazio horiek haien osaerako arauetan edo estatutuetan jasotako jardura-eremuarekin edo xedeekin bat badatoz.
5. Administrazioak aldi baterako enpresa-elkarteekin ere kontrata dezake (adjudikazioa gauzatu arte ez dira eskritura publikoan formalizatu beharko).

Aldi baterako enpresa-elkarteen osaera aldatu eta kontratua formalizatu aurretik eta ondoren aldaketak egiten badira, SPKLren 8. ataleko 69. artikulua eta hurrengoak bete behar dira. Ondore horietarako, Kontratazio Organoari aldaketen berri eman beharko zaio.

6. *Europar Batasuneko edo Europako Ekonomia Esparrua sinatu duten estatu- eta Batasunetik kanpoko enpresei dagokienez, SPKLren 67 eta 68 artikuluetan jasotakoa aplikatuko da.*
7. *Sektore Publikoaren Kontratuen Legeak 70.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, agiri honen xede den kontratua ezingo zaie adjudikatu lizitazioko obrak zaindu, gainbegiratu, kontrolatu eta zuzentzeko helburua duten zerbitzu kontratu- eta adjudikaziodun diren enpresei, ezta horiekin lotura duten enpresei ere. Elkarren artean lotura duten enpresatzat hartuko dira Merkataritza Kodearen 42. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean daudenak.*

16.-Proposamenak aurkeztea

1.-Proposamenak lizitazio elektronikorako <https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/> plataformaren bidez aurkeztuko dira. Proposamenak aurkezteko epea 20 egunekoa izango da, kontratatzailearen profilean argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

2.- Dokumentazioa nahiz jakinarazpenak eta komunikazioak bidaltzeko, Eskaintzak eranskinetan aipatutako edukiarekin aurkeztuko dira.

3.-Proposamenak isilekoak izango dira, eta hori bermatzeko bitartekoak erabiliko dira, lizitazio publikoa egiten den arte.

Dokumentuak izendatzeko, kontuan hartuko dira agiri honen 18. atalean adierazitako atalak, gutun-azal edo artxibo elektronikoetan sartu beharreko dokumentu-eduki gisa (BAT, BI eta HIRU).

17.- Lizitatzaillei informazioa ematea

1.- SPKLren 138.3. artikuluan aipatzen den informazio gehigarri edo osagarria eskatzea beharrezkoa denean, Administrazio Kontratatzaileak hura helarazi beharko du, beranduenez, eskaintzak aurkezteko ezarritako egun baino 6 egun natural lehenago, betiere, eskaera hori data hori baino 12 egun natural lehenago aurkezten bada gutxienez. Eskaera hori idezkaritza@irura.eus eta hirigintza@irura.eus helbide elektronikoetara zuzenduko da (bietara bidali beharko da mezua).

2.- Argitu beharreko kontsultak dagokion kontratatzailearen profilean argitaratzen badira, erantzunek izaera loteslea izango dute.

18.- Proposamenen edukia

1.- Proposamenak hurrengo klausuletan adierazten diren artxibo elektronikoetan aurkeztuko dira, horren ordezkari duen lizitatzaillearen edo pertsonaren eskutik.

2.- Artxibo elektroniko bakoitzaren barnean haren edukia jasoko da, aparteko fitxategi batean, zenbakituta (APKLEO Legearen 80.1. artikulua).

1zk. Artxiboa: "AURRETIKO BETEKIZUNAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEN DUEN DOKUMENTAZIOA."

1.- "Aurretiko betekizunak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa" izeneko gutun-azal honetan, jarraian zerrendatzen diren dokumentuak sartu beharko dira, bai eta horiek guztiak zerrendatzen dituen aurkibide bat ere.

a) Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB). Lasterbidea: <https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/esp/filter?lang=es> SPKLren 140. eta 141. artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz, I. eranskinean jasotako jarraibideen arabera bete beharreko erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko da, lizitatzailleak edo haren ordezkariak sinatuta, bertan adierazten den inprimaki-ereduaren arabera. Enpresa lizitatzailleak beste erakunde batzuen kaudimena eta baliabideak erabiltzen baditu, horietako bakoitzeko EKAB agiri bat aurkeztu beharko du. Baldintza-agiriaren ezaugarrien koadroan kontratuaren xedea lotetan banatzea aurreikusten denean, kaudimen ekonomiko eta finantzarioaren edo teknikoaren edo profesionalaren baldintzak ezberdinak badira lote batetik bestera, EKAB agiri bat aurkeztu beharko da kaudimen-betekizun berberak aplikatzen zaizkion lote edo lotemultzo bakoitzeko .

b) Aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko konpromisoa, hala badagokio. Bi enpresa edo gehiago lizitazio batera aldi baterako elkarte bat eratuz joaten direnean, dokumentu pribatu bat aurkeztu beharko dute, eta, bertan, enpresa horien izenak eta inguruabarrak, enpresa bakoitzaren partaidetza eta, adjudikaziodunak izanez gero, aldi baterako elkarte bat formalki eratzeko konpromisoa hartzen dutela adierazi beharko dute (SPKL 69 eta APKLEO 24). Agiri hori Batasuna osatzen duten enpresetako bakoitzaren ordezkariak sinatu beharko dute. Kasu horietan, enpresa bakoitzak EKAB agiria aurkeztu beharko du. **Agiri honen IV. eranskinean, aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko konpromisoaren eredia jaso da.**

c) Kontratua gauzatzeko giza baliabideak eta baliabide materialak atxikitzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena. Baldintza-agiri honetan adierazitako moduan.

d) Enpresa lizitatzaillearen berariazko erantzukizunpeko adierazpena, enpresa zein taldetakoa den eta talde bereko sozietate guztiak biltzen dituen, Merkataritzako Kodearen 42. artikuluan ezarritakoaren arabera. Proposamen bat anormalki baxua dela jotzeko parametroak ezartzen direnean aurkeztuko da. Ezein enpresa-taldetakoa ez bada, horren arabera egingo da adierazpena.

e) Lizitatzaillearen dokumentuak eta datuak konfidentzialak direla adieraztea. Enpresa lizitatzailleak, hala badagokio, adierazpen honen bidez adierazi beharko dute zer dokumentu administratibo eta tekniko eta aurkeztutako datu diren, beren ustez, konfidentzialtzat jotzen direnak. Gainera, zirkunstantzia hori (gaininprimatuta, bazterrean edo beste edozein modutan) hala adierazitako dokumentuan bertan jaso beharko da. Enpresa lizitatzailleak aurkeztutako dokumentuak eta datuak konfidentzialtzat jo daitezke, baldin eta hirugarren pertsona edo erakundeak beren interes komertzial legitimoen aurkakoak izan daitezke edo enpresen arteko lehia leialari kalte egin diezaiokete. Adierazpen hori aurkezten ez bada, ulertuko da ezein agiri edo datuk ez duela izaera hori.

f) Behin-behineko bermea egiaztatzen duen agiria, hala badagokio. Behin-behineko bermea eskatzen bada, honela gordailutuko da: Bankuko Kontuaren Nazioarteko Kodea duen ES25 2095 5184 6810 60024923 KUTXABANK-en kontuan, eskudiruzko bermeak direnean; orduan, gordailu hori egiaztatzen duen gordekina sartu beharko da. Kontratazio-organoaren aurrean, idatzitako baloreak ibilgetzeko ziurtagiriak, abalak (ikus abalaren eredia V. eranskinean) edo kauzio-aseguruaren ziurtagiriak direnean. Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, parte hartzen duten enpresetako batek edo batzuek eratu ahal izango dituzte behin-behineko bermeak, baldin eta, oro har, ezaugarrien taulako 18. zenbakian eskatutako zenbatekora iristen badira eta aldi baterako elkarteko kide guztiak solidarioki bermatzen badira.

g) Espezialitateak atzerriko lizitatuzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioan. Atzerriko lizitatuzaileek, adierazpenaz gain, honako hauek ere aurkeztu beharko dituzte, aurreko a) letran aipatzen den EKAB dokumentuaz gain, jarraian zehazten den dokumentazio espezifikoak. Espainiakoak ez diren enpresa guztiek honako ekarpen hauek egin behar dituzte:

Kontratutik zuzenean edo zeharka sortzen diren gorabehera guztietarako Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla adieraztea, eta, hala badagokio, lizitatuzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioforuari uko egitea (SPKLren 140.1 f) artikulua).

Europar Batasuneko kide ez diren edo Europako Esparru Bakarrari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako enpresek honako hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

- Enpresaren egoitzako Espainiako Misio Diplomatiko Iraunkorrek edo Bulego Kontsularrak emandako **txostena**, enpresak aldeztetik egiaztatuta, tokiko erregistro profesionalean, komertzialean edo antzekoan inskribatuta dagoela edo, halakorik ezean, kontratuaren xede diren jardueren esparruan tokiko trafikoa ohikotasunez jarduten duela adierazten duena.

- SPKLren 68. artikuluan aipatzen den **elkarrekikotasun-txostena**, erregulazio harmonizatuko kontratuak direnean izan ezik; kasu horretan, Munduko Merkataritza Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatu duen estatuari buruzko Ekonomia Ministerioko Misio Diplomatiko Iraunkorrek edo Kanpo Merkataritzako Idazkaritza Nagusiak egindako txosten batek ordeztuko du.

- Baldintza pliegoetan hala eskatzen bada, obra-kontratuen esleipendun diren Europako Erkidegokoak ez diren enpresek sukurtsal bat ireki beharko dute Espainian, beren eragiketarako ahalduak edo ordezkariak izendatuta, eta Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko dute.

2.- Kontratazio-organoak edo kontratazio-mahaiak edozein unetan eskatu ahal izango du lizitatuzaileek beren erantzukizunpean adierazi dituzten baldintzak betetzen direla egiaztatzeko agiriak aurkezteko. Lizitatuzaileak gehienez ere 10 egun balioduneko epean aurkeztu beharko du eskatutako dokumentazioa, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Errekerimendua adierazitako epean behar bezala betetzen ez bada, ulertuko da lizitatuzaileak eskaintza erretiratu duela eta prozeduratik kanpo utziko dela.

BI ZENBAKIKO ARTXIBO ELEKTRONIKOA EDO KARTAZALA: “BALIO IRIZPIDEEN BITARTEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA”

- 1.- Baldintzen 24. atalean aurretik eta balio-judizio baten bitartez baloratu beharreko adjudikazio irizpideak jaso baldin badira, lizitatzailleak BI zenbakiko artxibo elektronikoa aurkeztu beharko du, “BALIO JUDIZIO BITARTEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA” izenarekin, horretan sartuz hartan eskatutako dokumentazioa.
- 2.- Artxibo elektroniko honetan ez da inolaz ere sartuko HIRU zenbakiko artxibo elektronikoan behar duen informaziorik.

HIRU ZENBAKIKO ARTXIBO ELEKTRONIKOA EDO KARTAZALA: “FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ EBALUATZEKO ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIOA”

- 1.- “FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ EBALUATZEKO ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIOA” izeneko artxibo elektronikoan, eskaintza ekonomikoa eta formulen aplikazioaren bitartez ebaluatu beharreko bestelako dokumentuak jaso beharko dira.
- 2.- Proposamenak III. eranskinean jasotako eredura egokitu beharko dira, eta ez da onartuko Administrazioak eskaintza kontuan hartze aldera funtsezkotzat hartzen duena argi eta garbi ezagutzea eragozten duten hutsak, akatsak edo ezabapenak dituen proposamenik. Lizitatzailleen eskaintza ekonomikoetan, partida independente gisa, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoa adierazi beharko da, jasanarazi behar bada. Eskaintza ekonomikoa eta gutun-azal honetan jasotako gainerako dokumentazioa baldintza hauen 24. atalean adierazitako irizpideen arabera ebaluatuko dira.
- 3.- Proposamenen batek lizitazioaren oinarritzko aurrekontua gainditzen badu, ezarritako eredua nabarmen aldatzen badu, edo proposamenaren zenbatekoan akats nabarmena eragiten badu, edo enpresa lizitatzailleak proposamena bideraezin bihurtzen duen akats edo funtsik eza duela aitortzen badu, kontratazio-mahaiak baztertu egingo du, ebazpen arrazoituan. Aitzitik, ereduko hitz batzuen aldaketa edo omisioa, batak edo besteak bere zentzua aldatzen ez badu, ez da nahikoa kausa izango proposamena baztertzeko.
- 4.- Lizitatzaille bakoitzak eskaintza bakarra aurkez dezake, SPKLren 142. artikuluan aldaeren onargarritasunari buruz jasotakoa eragotzi gabe. Halaber, ezingo du beste enpresa batzuekiko aldi baterako elkarte eginez inolako proposamenik aurkeztu, aurretik bakarka aurkeztu badu, ezta aldi baterako elkarte bat baino gehiagotan badago ere. Printzipio hau urratuz gero, aldi berean aurkeztutako eskaintza guztiak ezetsi egingo dira.
- 5.- Proposamena aldi baterako enpresa elkarte batek egina denean, hura osatzen duten guztiek izenpetu behar dute, zuzenean edo beren ordezkarien bitartez.
- 6.- Aldaerak aurkeztea baimentzen duenean, erreferentzia gisa oinarria hartzen duen eskaintza ekonomikoaz gain eskaintza ekonomiko bat jaso ahal izango du artxibo honek aldaera bakoitzeko.

19.-Aldaketak onartzea

Ez da aldaketarik onartzen.

20.-Proposamenak aurkeztearen ondorioak

Enpresa lizitatzailerak proposamenak aurkeztean administrazio-baldintza partikularren eta baldintza teknikoaren agiriaren klausulak onartzen ditu, inolako salbuespen edo erreserbarik gabe, eta Kontratazio Mahaia eta Kontratazio Organoari baimena ematen die Sektore Publikoko Lizitatzailerak eta Enpresa Sailekuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu kideen operadore ekonomikoaren zerrenda ofizialean jasotako datuak kontsultatzeko.

Lizitatzailerak agiri horiei men egiten ez badiete haien eskaintzak ez dira onartuko.

Lizitatzailerak ezingo dute beren proposamena atzera botatu bi hilabeteko epean, kontratuaren adjudikaziorako prezioaren beste irizpide batzuk hartu direnean kontuan, SPKLren 158.4. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik. Epe hori 15 egun baliodunetan luzatuko da SPKLren 149. artikuluan, ezohiko moduan baxuak diren eskaintzei buruzkoan, aipatzen diren izapideak jarraitzea ezinbestekoa denean.

Proposamen bat behar ez bezala erretiratzen bada, lizitatzailerak ezingo du Administrazio Publikoekin kontratatu, SPKLren 71.2 artikuluan xedatuarekin batera. Aldi berean, behin-behineko bermea konfiskatzea ekarriko du, SPKLren 106.1 artikuluan arabera, hori eskatu izan balitz.

21.-Kontratazio Mahaia

Kontratazio-mahaia izango da eskaintzak baloratzeko organo tekniko eskuduna, eta SPKLren 326. artikuluan aurreikusitakoaren arabera jardungo du, eta maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 21. eta 22. artikuluetan ezarritakoaren arabera, artikuluen horien osakeraren eta eginkizunak garatzen baititu.

Lehendakaria: Alkatea (Gorka Murua Macuso)

Lehenengo kidea: Udaleko idazkaria/kontu-hartzailea (Irantzu Arrizabalaga Gainza)

Bigarren kidea: Udaleko arkitekto teknikoa (Iñaki Arregi Garitano)

Hirugarren kidea: Iñaki Echeverria Izaguirre arkitekto aholkularia

Idazkaria: Udaleko karrera-funtzionarioa (Cristina Fernandez Izaguirre) edo ordezkaria

22.-Gutun-azalak irekitzea eta proposamenak aztertzea (157. art.)

1.- Proposamenak ireki baino lehen, Mahaia kalifikatu egingo du 1. artxibo elektronikoan jasotako dokumentazioa, eta, bertan akats materialak ikusten badira, Mahaia hiru egun balioduneko epea eman ahal izango du lizitatzailerak akats horiek zuzen ditzan.

Kontratazio Mahaia proposamenak irekiko ditu Irurako Udalean (San Migel plaza, 1) proposamenak aurkezteko epea amaitu eta alde aurretik kontratatzailearen profilean zehazten den data egunearan.

Ekitaldi horretan, onartutako proposamenetako "BALIO-JUDIZIO BATEKIN BAT BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA" 2 artxibo elektronikoak bakarrik irekiko dira.

** Lizitazio-prozeduratik kanpo geratuko dira eskatutako baldintza teknikoak betetzen ez dituzten lizitatuak eta formulak aplikatuz ebaluatu beharreko dokumentazioa (HIRU zk.ko ARTXIBOA) artxiboetan dutenak.*

Ondoren, onartutako proposamenak udal-zerbitzu teknikoetara bidaliko dira, egikaritze-proiektu teknikoak idatzi duen enpresarekin batera balora ditzaten, baldintza-agiri honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera.

Hasierako deialdi honen mantentzea edo egin daitezkeen aldaketak Kontratatzailearen Profilean (www.irura.eus) argitaratuko dira, baina jakinarazpenerako egokitzat jotzen den beste edozein bide erabili ahal izango da.

2. artxibo elektronikoa jasotako eskaintzak baloratu ondoren, Kontratazio Mahaiak, ekitaldi publikoan, proposamenen (eskaintza ekonomikoa) "eskaintza EKONOMIKOA ETA EBALUATU DAITEZKEEN AGIRIAK" 3. Artxibo elektronikoa irekiko du. Egintza horretarako deialdia Kontratatzailearen Profilean ere jakinaraziko da (www.irura.eus), baina jakinarazpena egiteko egokitzat jotzen den beste edozein bide erabili ahal izango da.

2.- Gutun-azal horietan jasotako dokumentazioa baldintza-agiri honen 24. klausulan adierazitako irizpideen arabera ebaluatuko da.

3.- Aurreko atalen arabera egindako guztia dagokion aktetan jasoko da, eta akta horietan prozeduraren emaitza eta gorabeherak jasoko dira.

23.-Kontratazio Mahaiaren egintzen emaitza argitaratzea eta lizitatuak jakinaraztea.

Lizitatuak ekitaldi publikoan bertan jakinaraz diezaiokete baztertua izan dela, enpresaren ordezkariaren bitartez edo, horrelakorik ezean, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta ondokoetan ezarritako prozedurak betez.

Jakinarazpena bitarteko elektronikoen bidez egitea ukatu egin dela ulertuko da jakinarazpena eskura jarri denetik 10 egun natural igaro badira haren edukian sartu gabe; eta noifikatzeko betebeharrak epearen barruan bete dela ulertuko da jakinarazpena Irurako Udalaren egoitza elektronikoa eskuragarri jartzen denean.

24. Adjudikazio-irizpideak

Kontratua adjudikatzeko irizpide anitz hartuko dira kontuan, kalitate-prezio erlazioan onena duen eskaintza oinarritzat hartuta.

Hona hemen prozedura ireki sinplifikatu bidez adjudikatzeko irizpideak, garrantzi gehien dutenak lehenengo jarriz eta ematen zaien ponderazioa kontuan izanik:

AUTOMATIKOKI NEURGARRIAK DIREN IRIZPIDEAK. 75 puntu (3 zk. gutun-azalean sartu behar dira)

1.-Kontratuaren prezioa: 65 puntu gehienez.

Eskaintza ekonomikorik onenari emango zaio puntuaziorik handiena eta gainontzeko eskaintzak puntuatzeko formula bat erabiliko da; hau da, eskaintza ekonomikorik baxuenaren eta irizpide honen arabera puntu gehien lortu dituen

lizitzailearen eskaintzaren arteko zatidura biderkatuko da. Hau da,

LP= Et/LE x 65

Izanik:

LP: lizitzailearen puntuazioa

Et: eskaintzarik baxuena

LE: lizitzailearen eskaintza

Eskaintza ekonomikorik baxuenak SPKLren 149.4 artikuluan eta 1098/2001 Errege Dekretuak onartutako Araudiaren 85. artikuluan zehaztutako irizpideekin baloratuko dira.

2.- Mantentze-zerbitzua eta berme-epea: 10 puntu gehienez.

Obra jasotzen denetik urtebete beranduago berme-epea zabaltzea baloratuko da:

- Berme-epea 2 urtera luzatzea: 4 puntu
- Berme-epea 3 urtera luzatzea: 6 puntu
- Berme-epea 4 urtera luzatzea: 8 puntu
- Berme-epea 5 urtera luzatzea: 10 puntu

JUDIZIO BALIO BIDEZ NEURGARRIAK DIREN IRIZPIDEAK. 25 puntu (2 zk. gutun-azalean sartzeko)

MEMORIA TEKNIKOA

Egin beharreko obraren azterketa baloratuko da, bai eta aditu batek obra egiteko proposatutako planteamendua ere. Halaber, baloratuko da memoria ordenatua, sintetikoa, ulergarria eta honako atal hauek argi eta garbi mugatuta izatea:

1.- Proiektuaren dokumentazioaren analisia (8 puntu)

Proiektuaren dokumentazioa aztertu beharko da, egin beharreko obraren definizioari dagokionez. Proiektuan egon daitezkeen zehaztugabetasunen edo omisioen identifikazioa baloratuko da. Era berean, eraikuntza-xehetasunetan edo bestelako alderdietan hobekuntzak egiteko proposamenak baloratu ahal izango dira, betiere zuzendaritza teknikoak onartzen baditu eta lizitazio-aurrekontua handitzea ez badakarte.

2.- Ezarpen-azterketa (3 puntu)

Obrak gauzatzeko beharrezkoak diren instalazioak eta etxolak ezartzeko proposamenaren egokitasuna baloratuko da. Kontuan hartu beharko dira proposatutako lursailen erabilgarritasuna, dauden instalazioak, obrarako sarbideak eta eraikinean dauden jarduerak. Halaber, arrazoi horiek direla-eta makina obra egiteko egokia den baloratuko da.

3.- Lanen programazioa (5 puntu)

Proiektuaren obrak gauzatzeari dagokionez baloratuko da proposamena. Proposatutako ekipoak (langileak eta makineria), obren zatiak egiteko modua eta jardueren sekuentziak hartuko dira kontuan. Obren jarraipena egiteko proposatutako metodologia ere baloratuko da, zuinketa, exekuzioa, neurketa eta kontrola barne.

a. Proiektua osatzen duten unitateak obra-zati edo -motatan antolatzea, neurketak adierazita. Diagramak ez baditu obra-unitate guztiak barne hartzen, zero puntu emango zaizkio atal honi.

b. Proiektua osatzen duten unitate guztien beharrezko baliabideak zehaztea, hala nola langileak, instalazioak, ekipoak eta materialak, batez besteko errendimenduak adierazita. Diagramak ez baditu obra-unitate guztiak barne hartzen, zero puntu emango zaizkio atal honi.

c. Proiektua osatzen duten unitate guztien GANTT diagrama. Diagramak ez baditu obra-unitate guztiak barne hartzen, zero puntu emango zaizkio atal honi.

d. Proiektua osatzen duten unitate guztien KASU KRITIKOAREN diagrama. Diagramak ez baditu obra-unitate guztiak barne hartzen, zero puntu emango zaizkio atal honi.

4.- Eraginak kontrolatzea eta kudeatzea (4 puntu)

Obraren ingurunea ezagutzea eta obrak bere eragin-eremuaren ohiko funtzionamenduan izan ditzakeen eragozpenak minimizatzeko proposamenak egitea baloratuko da, bereziki gaitu beharreko eraikina kokatuta dagoen higiezinetako bizilagunei dagokienez, bai eta eragin horiek zaintzeko, kontrolatzeko eta kudeatzeko proposamenak ere.

Lanak egin bitartean ibilgailuen eta oinezkoen trafikoarentzat izan daitezkeen afekzioak, ebakiak eta desbideratzeak krokisekin labur azaltzea (gehienez A4 orri, alde batetik, Arial 10 letra-mota). Gorabehera horietarako aurreikusitako gehieneko denborak zehaztea. Langileen eta bitartekoen aldetik proposatutako baliabideak.

a. Trafikoaren eraginaren analisia, aurreikusitako gehieneko denborak.

b. Oinezkoen eragina aztertzea.

c. Afekzio pertsonalei, seinalitikoari eta abarrei atxikitako baliabideak edo bitartekoak: puntu 1

5.- Faseak eta zailtasunak (5 puntu)

Azalpen laburra (gehienez 3 A4 orri, alde batetik, 10. letra-mota), eskaintzailearen ustez obran gertatzen diren faseak eta zailtasunak zehaztuz, proiektua behar bezala gauzatzeko eskainitako bermeak zehaztuta. (Ez da eskatzen partidak eraikitzeke metodoa).

Oharra: eskatutakoa baino informazio gehiago aurkeztuz gero edo atalen batean orrien gehieneko kopurua gaindituz gero, aurkeztutako eskaintza zero punturekin baloratuko da memoria teknikoaren balorazio-irizpidean.

Udalak lizitazioa esleitu gabe utzi ahal izango du, baldin eta jarduketaren proiektuan kontratatzen den obra egiteko beharrezkoak diren gutxieneko kuantitatiboak eta kualitatiboak agertzen ez badira, eta, beraz, atal honetan gutxienez 12,5 puntu lortzen ez badira; kasu horretan, ez da eskaintza ekonomikoaren baloraziorik egingo.

25.Eskaintza argitzea

Kontratazio Organoak edo Kontratazio Mahaiak lizitatzailari eska diezaioke aurkeztutako eskaintza argitzeko edo, hala badagokio, haren idazketan antzemandako akats materialak zuzentzeko; edonola ere, tratuan berdintasun-printzipioa errespetatuko da eta ezingo dira inolaz ere eskaintzaren baldintzak aldatu. Espedientean egindako guztiaren informazioa bilduko da (SPKLren 95. artikulua).

26.-Eskaintza ekonomiko baxuegiak

1.-Eskaintzen batez bestekoaren % 20etik beherako eskaintzak baxuegizat joko dira.

2.- Puntuaziorik onena lortu duen lizitatzailaren eskaintza baxuegia bada, Kontratazio Mahaiak, eskaintzak baloratu, sailkatu eta adjudikaziorako proposamena egin ostean, lizitatzailari eskatuko dio 5 egun balioduneko epean gehienez eskaintza baxuegizat jotzen duten parametroak arrazoibidez eta zehaztasunez justifikatzeko eta xehakatzeko. Halaber, SPKLren 149. artikuluko 4etik 6era bitarteko ataletan aurreikusitako prozedura izapidetuko du, eta, emaitza ikusirik, Kontratazio Organoari proposamena onartzea edo atzera botatzea proposatuko dio.

27.- Berdinketa kasuetan lehenetsiko dena

Bi eskaintzari edo gehiagori emandako puntuazioan berdinketa gertatuko balitz, hurrengo irizpideei jarraituko zaie berdinketa hori desegiteko:

1. Emakumeen eta gizonezkoen arteko aukera berdintasuna sustatuko duten neurri sozialak eta lanekoak.

2. Zozketa, aurreko irizpidea aplikatzean berdintasuna desegin ez denean.

Atal honetan aipatzen den berdintasuna desegiteko irizpideak egiaztatzen duten dokumentazioa berdinketa gertatzen den unean aurkeztuko dute lizitatzailaek, ez aurretik (SPKLren 147. art.).

28.- Kontratuaren esleipena

28.1.- Eskaintzak sailkatzea, kalitate-prezio erlazio onena duen eskaintza aurkeztu duen lizitatzailaek aurretiko baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztea eta esleipen-proposamena

1.- Jendaurreko ekitaldiaren ondoren eta artxibo elektronikoa irekitzeko saioan bertan, baldintza-

agiriko eskakizunak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertu ondoren, hala badagokio, kontratazio-mahaiak, aktarekin batera, dagokion balorazioa eta esleipen-proposamena bidaliko dizkio kontratazio-organoari. Proposamen horretan, eskaintzak beheranzko hurrenkeran ordenatuko dira, eskaintza bakoitzari agiri honetako 22. atalean adierazitako irizpideen arabera emandako puntuazioa erantsita, eta zerrenda hobeto identifikatuta.

2.- Bileran berean, Lizitatuzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean egiaztatuko da enpresa behar bezala inskribatuta dagoela, SPKLren 159.4f) 3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Lizitatuzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren inskripzioan egiaztatu beharreko baldintzaren bat agertzen ez bada, enpresak SPKLn aurreikusitako bideetako baten bidez justifikatu beharko ditu.

28.2 Behin betiko bermea

Kontratuaren enpresa esleipendunak, bere gain hartutako betebeharrak betetzen dituela bermatzeko, esleipenaren zenbatekoaren % 5eko behin betiko bermea eratu beharko du, BEZa kenduta.

Berme hori eratzeko epea zazpi egun balioudunekoa izango da, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatuzaileak errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera, eta SPKLren 108. artikuluan ezarritako bideetako edozeinetan eratu ahal izango da, salbu eta eskudirutan eraturitakoak Irurako Udalaren edozein kontu korrontetan sartu behar direla.

Berme horren gainean esleipendunari eska dakizkiokeen zigorrak edo kalte-ordainak ordaintzen badira, esleipendunak berme hori birjarri edo handitu beharko du, berme hori betearazten denetik 15 egun naturaleko epean; bestela, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.

Kontratua aldatzearen ondorioz prezioa aldatzen bada, bermea egokitu egin beharko da, 15 egun naturaleko epean, esleipendunari aldatuta-erabakia jakinarazten zaion egunetik zenbatzen hasita, aldatutako prezio berriarekin behar bezalako proportzioa izan dezan.

Nolanahi ere, behin betiko bermea SPKLren 110. artikuluan aipatzen diren kontzeptuen arabera izango da. Kontzeptu horien barruan sartzen da kontratistak ez betetzea kontratuaren xede diren prestazioak behar bezala ez gauzatzearen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte-galerak ordaintzeko betebeharra, SPKLren 196. artikuluan aurreikusitakoa.

28.3 Esleipena

Esleipenaren ebazpena arrazoitu egin beharko da, lizitatuzaileei jakinaraziko zaie eta, aldi berean, kontratatzailearen profileen argitaratuko da.

Aurreko paragrafoan aipatzen den jakinarazpenak eta publizitateak beharrezko informazioa izango dute, esleipen-prozeduran interesa duten pertsonak esleipen-erabakiaren aurka errekurso behar bezala funtsatua jartzeko, eta, bereziki, SPKLren 151.2 artikuluan eskatutakoa.

Esleipenaren arrazoiei SPKLren 155.3 artikuluan jasotako konfidentzialtasun-salbuespena aplikatuko zaie.

Nolanahi ere, jakinarazpenean eta kontratatzailearen profileen adieraziko da zer epetan formalizatu behar den, SPKLren 153. artikuluan xedatutakoaren arabera.

29.-Kontratua formalizatzea

1.-Kontratua lizitazio-baldintzetara zehatz-mehatz egokituko den administrazio-agiri batean formalizatuko da. Dokumentu hori nahikoa izango da edozein

erregistro publikotan sartzeko. Edonola ere, kontratistak kontratuaren eskritura publikoa egiteko eska dezake, eta gastuak hark ordainduko ditu. Kontratua formalizatzeko administrazio-agiriak ezingo du inolaz ere adjudikazioaren terminoak aldatzen dituen klausularik jaso.

Kontratua ezingo da gauzatu, ezta hobetu ere, formalizatzen ez den bitartean.

Enpresa adjudikaziodunaren ordezkariak hainbat agiri aurkeztu behar dizkio Kontratazio Organoari, kontratua sinatu aurretik.

Kontratua 15 egun balioduneko epean formalizatu behar da gehienez, adjudikaziodunak adjudikazioaren jakinarazpena jasotzen duen hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Kontratuaren edukiarekin batera jasota utzi behar da adjudikaziodunak zer betebeharrak hartzen dituen bere gain, adjudikazio-irizpideekin lotuta aurkeztu beharreko proposamen teknikoan.

Adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua epean formalizatzen ez bada, lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren % 3 ordaindu beharko du (BEZ kanpo), behin betiko bermearen kontura (egonez gero). Horrez gain, kontratatzeke galarazpena ere ezarri ahal izango zaio, SPKLren 71.2.b) artikulua betez.

Aldiz, kontratua Administrazioari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik formalizatu ez bada, kontratistari atzerapen horren ondoriozko kalte-galerak ordainduko zaizkio.

Kontratuaren formalizazioari publizitatea emango zaio, SPKLren 154. artikuluan xedatutakoaren arabera.

III. KAPITULUA – KONTRATUA GAUZATZEA

30.-Obra-zuzendaria eta obra-ordezkaria.

Obra zuzentzea, ikuskatzea, egiaztatzea eta kontrolatzea: botere adjudikatzailerak zuzendari fakultatiboa izendatuko du, eta haren bitartez lanak zuzendu, ikuskatu, egiaztatu eta kontrolatuko ditu, baita kontratistari beharrezko aginduak eta argibideak eman ere, SPKLren 238. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Kontratuaren arduradunaren ahalmenak zuzendari fakultatiboak baliatuko ditu, eta Irurako Udalak kontratatuko du; beraz, haren kontura izango dira kontratazioak eragindako gastuak.

Obraren zuzendari fakultatiboa Administrazioak izendatutako pertsona da, eta titulazio egokia eta nahikoa du obra zuzendu eta kontrolatzeko, eta bere gain hartzen du Administrazioaren ordezkariaren kontratistaren aurrean.

Zuzendari fakultatiboak bere gain hartuko ditu, eraikuntza-lanetan segurtasun- eta osasun-arloko gutxienezko xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretutik eratorritako

funtzioez gain, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 62. artikuluan aurreikusitako kontratuaren arduradunaren eginkizunak, eta, zehazki, honako hauek:

— Kontratuaren exekuzioaren jarraipen materiala egitea, kontratistak exekuzio-betebeharrak kontratuan adostutako moduan betetzen dituela egiaztatzeko.

— Esleipendunak eta azpikontratistek gizarte-, zerga- eta ingurumen-arloko betebeharrak benetan betetzen dituztela egiaztatzea, bai eta kontratuan ezarritako betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzea ere, baldin eta horrek dokumentazioa aurkeztea edo administrazio-izapideak egitea badakar.

— Beharrezkoak diren bilerak sustatzea, kontratuaren xedea gauzatzean sortzen den edozein gorabehera konpontzeko, hargatik eragotzi gabe kontratazio-organoak suntsiaraztea, Herri Administrazioen Kontratuaren Legearen Erregelamendu Orokorren 97. artikulua ezartzen duen prozedura kontraesankorraren bidez.

— Kontratistari jarraibide egokiak ematea, hitzartutako baldintzetan kontratua benetan betetzen dela ziurtatzeko. Jarraibide horiek berehala betearaztekoak izango dira, pertsonen segurtasunari eragin diezaioketen heinean, edo, kontratua aplikatzeko atzerapenak berekin ekar badezake gerora alferrikakoak izatea, kontratuaren gauzatzearen garapenaren arabera; gainerako kasuetan, eta esleipenduna ados ez badago, kontratazio-organoak hartu beharreko neurriari buruzko ebazpena emango du, kalterik egin gabe egin daitezkeen kalte-ordainei.

— Kontratua ez betetzeagatik zigorrak ezartzea proposatzea.

— Kontratua gauzatzeak eragindako kalte-galerak erreklamatzeko espedienteetan informazioa ematea.

Obra-ordezkarria: kontratistak obra-ordezkarri bat izendatu ahal izango du edo, pertsona juridikoa bada, obra-ordezkarri bat izendatu beharko du (aurrerantzean, "Delegatua"), behar beste ordezkari-tza-ahalorde izango duena, bere izenean botere esleizaitzearen aurrean obligatu ahal izateko, obren martxa egokia eta zuzena izan dadin.

Ordezkarriak obraren exekuzioa antolatu behar du, behar bezala garatu eta amai dadin; obran zehar sortzen diren arazoak konpontzeko proposamenak egin behar ditu eta horretan lagundu behar du; eta zuzendaritza fakultatiboak jasotako aginduak interpretatu eta praktikan jarri behar ditu.

Kontratistak ordezkaria izendatuko du, eta kontratazio-organoari jakinaraziko dio, kontratua formalizatu aurretik onar dezan. Ordezkarri izendatutako pertsonaren izenarekin batera, kontratuaren xede diren obren izaera bereko edo antzeko obretan izandako esperientzia egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztuko da, bai eta jakinarazpenetarako helbidea ere.

31.- Lanak hastea eta zuinketa egiaztatzea

Zuinketa egiaztatzeko akta sinatzean hasiko da obra-kontratua gauzatzen.

SPKLren 237. artikulua eta HAKLAOren 139. artikulua betez egingo da zuinketaren egiaztatpena.

SPKLren 237. artikulua jasotako betez, zuinketa egiaztatu ostean akta idatziko da HAKLAOren 140. artikuluan jasotako eduki eta ondorioekin.

32.- Segurtasunaren eta osasunaren arloko koordinatzailea.

Irurako Udalak izendatuko du segurtasun- eta osasun-koordinazioaz arduratuko den enpresa, eta, era berean, bere gain hartuko ditu kontratazioak eragindako

gastuak.

33.-Laneko Segurtasun eta Osasun Plana.

Lanak hasi aurretik 1627/1997 Errege Dekretuaren 7. artikulua aipatutako Laneko Segurtasun eta Osasun Plana (aurrerantzean, "Plana") onartu behar da.

Kontratatik Irurako Udalarik onartzeko Planarekin batera zuzendari fakultatiboaren eta, hala badagokio, segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzailearen aldeko txostena aurkeztuko dio.

Kontratatik Plana aurkezteko gehieneko epea betetzen ez badu ere, zuzendari egiaztatzeko edo, hala badagokio, lanak hasteko baimena eman daiteke. Alabaina, lan horiek Plana onartzean jarriko dira martxan. Kasu horretan, zuzendari egiaztatzeko akta sinatu edo obrak hasteko baimena ematean hasiko da kontratua, eta lehen aipatutako alderdiak jasoko ditu.

Halaber, kontratatik ezingo du epea zabaltzeko eskatu.

34.- Hondakinak kudeatzeko plana

Kontratatik hondakinak kudeatzeko plan bat idatziko du, zuzendaritza fakultatiboak eta jabeak onartu beharko dutena, obraren kontratu-agiriekin batera jasota uzteko.

35.- Aseguruak

Kontratatik nahitaez kontratatu behar ditu derrigorrezko aseguruak, lanak burutu eta berme-epaia iraun bitartean. Hain zuzen ere, honako aseguru hauek edukiko ditu, adierazitako epean eta baldintzekin:

35.1.- Amaitutako obrek eta egiten ari direnek izan ditzaketen kalteak estali beharko ditu eta aseguraturako zenbatekoa kontratuaren prezioaren bestekoa izan beharko da.

35.2.- Arrisku profesionalen kalte-ordainetarako 600.000 €-ko edo gehiagoko erantzukizun zibileko aseguruak.

Ondokoak bildu beharko ditu: erantzukizun orokorra, patronalarena, gurutzatua eta amaitutako lanena. Eta, horrez gain, kontratista, azpikontratatik eta botere adjudikatzailea aseguratu gisa agertu beharko dira.

35.3.- Hamar urteko aseguruak: kontratatik kalteak estaltzeko hamar urteko aseguruak kontratu behar du, baldintza hauekin: 1. Botere adjudikatzailea aseguratu gisa agertu beharko da eta 2. Obraren kostu osoa aseguraturako da (egikaritze materialaren aurrekontua, gastu orokorrak eta industria-onura, zuzendari fakultatiboaren ordainsariak guztira (BEZ barne), lizentziak, tasak eta zergak).

36.- Kontratistaren oinordekoa

1.- Enpresak edo enpresen jarduera-adarrak batzen, zatitzen, jartzen edo eskualdatzen direnean, kontratuak jarraitu egingo du kontratua esleitzen zaion entitatearekin, hori subrogatu egingo baita kontratutik eratorritako eskubide eta obligazioetan, betiere SPKLren 98. artikuluan eskatzen diren baldintzak betetzen badira. Kontratista aldi baterako enpresa-elkartea denean, SPKLren 69.8 artikuluan jasotakoa beteko da.

2.-Kontratistak bere nortasun juridikoari eragin diezaiokeen edozein aldaketaren berri eman behar dio Administrazioari, frogagiriaren bidez. Datu horiek egiaztatzen ez diren bitartean eten egingo dira dagozkion fakturak ordaintzeko aurreikusitako legezko epeak.

3.-Subrogazioa ezinezkoa denean kontratuaren adjudikaziodunak ez dituelako betetzen beharrezko kaudimen-baldintzak, kontratua suntsitu egingo da eta, ondore guztietarako, iritziko zaio adjudikaziodunaren erruz suntsitu dela.

37.- Kontratuaren lagapena

1.- Pertsona edo enpresa adjudikaziodunak kontratuaren eskubideak eta betebeharrak beste norbaiti laga ahal izango dizkio, baldin eta lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak ez badira erabakigarriak izan kontratua esleitzerako garaian eta lagapenak merkatuan lehiaren egiazko murrizketa eragin ez badu.

2.- Kontratistak eskubideak eta betebeharrak beste norbaiti laga ahal izateko baldintza hauek bete behar ditu:

- a) Kontratazio Organoak lagapena egiteko baimena berariaz eta aurretik ematea.
- b) Lagatzaileak kontratuaren % 20 behintzat burututa edukitzea.
- c) Lagapenaren hartzaileak kontratatzeke gaitasuna eta kontratuaren gauzatzefasearen arabera eskatutako kaudimena izatea; behar duen sailkapena edukitzea, lagatzaileari eskatu bazaio, eta kontratatzeke debekurik ez izatea.
- d) Adjudikaziodunaren eta lagapenaren hartzailearen arteko lagapena eskritura publiko bidez formalizatzea.

3.- Lagapenaren hartzaileari lagatzaileari dagozkion eskubideak eta betebeharrak subrogatuko zaizkio.

38.- Adjudikaziodunaren baldintzak eta betebeharrak

38.1.- Baldintza orokorrak

1.- Kontratua gauzatuko da agiri honetan zehaztutako klausulei zorrotz jarraikiz eta kontratistak obra-arduradunari interpretatzeko emandako jarraibideak betez.

2.-Adjudikazioduna izango da burututako lanen kalitatearen erantzulea, baita kontratua gauzatzean egiten diren utzikeriek, akatsek, metodo desegokiek edo okerreko burutzapenek Administrazioari edo beste batzuei dakarzkieten ondorioena ere.

3.- Pertsona edo enpresa kontratistak giza talde eta bitarteko egokiekin egin behar

ditu lanak eta kontratua gauzatzeak noiznahi sortzen dituen premiei behar bezala erantzun. Lanak behar bezala gauzatzeko beharrezko bitarteko teknikoak ahalbidetuko ditu, proposamenekoak barne.

4.- Kontratatik arrisku profesionalen kalte-ordainetarako 600.000 €-ko edo gehiagoko erantzukizun zibileko aseguruia eduki behar du. Adjudikaziodunak kontratuaren kopia eta kontratua sinatu aurreko azken ordainagiriaren kopia aurkeztu behar ditu.

Edonola ere, kontratatik ordainduko ditu eragin daitezkeen kalte-galerak, aseguru-polizen mugak gainditzen dituzten zenbatekoetan, baita aseguruiek estaltzen ez dituzten ondasunen eta arriskuen kasuan ere.

5.- Administrazioak zehaztuko du kontratistaren prestazioa hori gauzatu eta betetzeko jarritako baldintzetara egokitzen den, eta, hala badagokio, kontratupeko prestazioak emateko eta haiek jasotzean hautemandako akatsak konpontzeko eskatuko dio. Baldin eta kontratistari egotz dakizkiokkeen akatsengatik edo hutsengatik lanak ez badira kontratupeko prestaziora egokitzen, Administrazioak prestazioari uko egin diezaioke, eta salbuetsita geldituko da hari ordaintzeko betebeharratik edo, hala badagokio, eskubidea izango du ordaindutako prezioa berreskuratzeko.

6.- Lizitaziora aurkezten diren enpresek borondatez onartzen dute lizitate-, esleitze- eta betetze-prozesuetatik eratorritako datu guztiei gardentasuna ematea.

38.2.- Kontratua betetzeko baldintzak bereziak

38.2.1.- Lan- eta gizarte-arloko baldintzak

Kontratua egikaritzeko hurrengo baldintza bereziak zehazten dira, 9/2017 Legearen 202 artikuluan, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, zehazten denaren arabera:

1. Lan arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden legezko, arauzko eta hitzarmenezko xedapenen pean dago kontratu hau.
2. Lizitatuzaileek adierazi beharko dute zer hitzarmen kolektibo aplikatuko zaien kontratuaren barruko jardunean aritzen diren langileei esleipendun gertatzen badira. Era berean, eskatzen zaien informazio guztia eman beharko dute kontratua esleitutakoan langileei benetan aplikatzen zaizkien lan baldintzei buruz.
3. Kontratua gauzatzen ematen duen denbora guztian, dagokion Eraikuntza Hitzarmen kolektiboaren arabera lan baldintzak aplikatu beharko ditu enpresa esleipendunak, hau hobetzen duten eta indarrean dauden bestelako enpresa hitzarmenen kaltetan izan gabe, langileei dagokien kategoria profesionalaren arabera betiere, eta ordaintzen duen soldata inola ere ezingo da izan hura baino txikiagoa.
4. Klausula honek ezartzen dituen betebeharrak kontratua betetzeko baldintza berezizat hartuko dira, eta haiek ez betetzeak kontratua suntsitzea ekarri ahalko du.

38.2.2.- Ingurumenaren babeserako baldintzak

Langileek beren zereginen gaineko eta osasuna eta ingurumena errespetatuz jarduteko prestakuntza jaso behar dute.

Kontratua betetzerakoan sortutako hondakinak adjudikaziodunak berak kudeatuko ditu eta era egokian kudeatuko dituela bermatuko du.

Adjudikaziodunak barrutian sortutako hondakinen gaikako bilketa mantenduko du eta hondakinak dagokion edukiontzietan botako ditu.

Obran sortutako hondakinak (papera, zapiak, kartoia, produktuen ontziak, etab.) bereizi eta dagozkion hiri-edukiontzietan botako ditu; aldiz, hiri-edukiontzietan bota ezin daitezkeen hondakin arriskutsuak baimendutako kudeatzaile baten esku utziko ditu (funtsean arriskutsutzat jotzen diren garbiketa produktuen ontziak).

38.2.3.- Kontratua gauzatzeko hizkuntza-baldintzak

- 1.- Kontratuak Euskal Autonomia Estatutuaren 5. artikulua ezarritako hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubidea eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea bete behar ditu.
- 2.- Adjudikaziodunak bi hizkuntza ofizialetan aurkeztuko ditu kontratuaren xede diren azterlanak, txostenak, proiektuak eta bestelako lanak, softwareen testu- eta soinu-interfazeak barne.
- 3.- Diseinu eta jarduera guztien plangintza elebiduna egin behar da; hau da, euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztuko dira, aurreikusitako egintzaren eta hartzaileen arabera euskarari lehentasuna ematen zaion kasuetan izan ezik.
- 4.-Euskararen erabilera bermatuko da idatzi, argitalpen, seinale, oharpen, komunikazio eta, oro har, elkarrizketetan.
- 5.- Kontratua gauzatzean hirugarrenekin edo herritarrekin harremanetan egon behar denean, erabiltzaileak edo, hala badagokio, hirugarren batek erabakiko du kontratua gauzatzeaz arduratuko den enpresak zer hizkuntza erabiliko duen ahozko zein idatzizko komunikaziorako. Espresuki ezer jasota ez badago, enpresa adjudikaziodunak bi hizkuntza ofizialak erabiliko ditu pertsona fisikoei zein juridikoei jakinarazpenak egiteko; dena dela, herritarrak edozein unetan eska dezake hizkuntza ofizial bakarra erabiltzeko.

Hurrengo baldintza-orrietan jasotzen diren hizkuntza-eskakizunak ezinbestekoak dira Sektore Publikoko Kontratuen Legearen ondoretarako; osterantzean, eta gainontzeko baldintzak urratzen direnean gertatzen den eran, zehapenak ezarri edo kontratua suntsiaraz daiteke.

38.2.4.- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako baldintzak

- 1.- *Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako* martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa betez, enpresa adjudikaziodunak kontratua gauzatzean emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzeko neurriak ezarri behar ditu, arlo hauetan: enplegua, sailkapen pertsonala, sustapena, iraupena, prestakuntza, ordainsariak, laneko egonkortasuna eta kalitatea, lanaldiaren antolamendua eta iraupena eta kontratuari atxikitako langileen lana eta bizitza pertsonala eta familiarra bateratzeko neurriak.
- 2.- Enpresa adjudikaziodunak hizkuntzaren erabilera ez-sexista bermatu behar du kontratua gauzatzean sortutako dokumentu, publizitate, irudi eta materialetan, eta emakumeen irudi diskriminatzailea edo sexu-estereotipoak ekiditearekin batera berdintasuna, oreka, aniztasuna, erantzukidetasuna, rol anitzak eta genero-identitatea sustatu behar ditu.
- 3.- Enpresa edo erakunde adjudikaziodunak bermatuko du lantokian sexu-jazarpenera eta sexuan oinarritutako jazarpenera prebenitzeko neurriak hartu dituela, baldin eta kontratua gauzatzeko hamar langile baino gehiago behar badira.

38.2.5.- Azpikontratatzeko baldintzak

1.-Azpikontratuak egiteko baldintza hauek bete behar dira:

- a) Adjudikaziodunak Kontratazio Organoari idatziz ohartaraziko dio, kontratua gauzatzen hasten denean beranduenik ere, prestazioaren atal batzuk azpikontratatzea aurreikusi duela. Horrekin batera, azpikontratisten izen-abizenak, harremanetarako datuak eta lege-ordezkariek ahalbidetuko dizkio, eta baita azpikontratisten gaitasunaren eta Administrazioarekin kontratatzeke debekurik ezaren egiaztatzeak ere.

Enpresa kontratistak aurreko atalean adierazitako agiriekin batera azpikontratistak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du, SPKLren 71. artikuluan aipatutako kontratatzeke debeku eta desgaituntzarik ez duela egiaztatzeke.

Azpikontratuak eskaintzan zehaztutakoarekin bat ez badatoz (eskaintzan izenez adierazitako enpresekin egin ordez beste batzuekin egiten direlako edo prestazioaren beste atal batzuei dagokielako), ezin izango dira egin, jakinarazpena bidali eta azpikontratistaren gaitasunari (elementu teknikoak eta giza baliabideak eta esperientzia) buruzko egiaztatzeak aurkezten direnetik 20 egun igaro arte, baldin eta azpikontratu horiek ez badira alde aurretik eta berariaz baimendu, eta Administrazioak ez badu, epe horren barruan, horien aurka dagoela adierazteko jakinarazpenik egin. Araubide berdina aplikatuko da baldin eta eskaintzan beren lanbide profila deskribatuz identifikatu badira azpikontratistak.

- b) Azpikontratuak 20 egun naturaleko epea igaro gabe ere egin ahal izango dira, betiere enpresa kontratistaren erantzukizunaren pean, baldin eta hori egitea beharrezkoa bada larrialdi bati erantzuteko edo presazko neurriak ezarri behar direlako, eta behar bezala justifikatzen eta jakinarazten bada.

2.- Azpikontratistek kontratista nagusiaren aurrean baino ez dute erantzun beharko. Ondorioz, kontratista izango da kontratuaren erantzule bakarra Administrazioaren aurrean eta baldintza partikularren agiriak eta kontratuaren baldintzak zorrozki betetzeaz gainera, ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloan jasotzen diren betebeharrak bete beharko ditu.

Kontratista nagusiak erantzukizun osoa izaten jarraituko du nahiz eta aurreko 1 ataleko a) eta b) letretan aipatutako komunikazioen arabera Administrazioa sinatutako azpikontratuen jakinaren gainean egon edo atal horretako c) letrean aurreikusten den baimena eman.

3.- Enpresa kontratistak ezingo die inolaz ere kontratuaren zati bat gauzatzen utzi ordenamendu juridikoaren arabera kontratatzeke desgaituntza duten edo SPKLren 71. artikuluko egoeraren batean dauden pertsonen.

4.- Lan-arloko legeriari jarraikiz, enpresa kontratistak azpikontratazioaren berri eman behar dio langile-ordezkariei.

5.- Enpresa edo erakunde adjudikaziodunak Kontratazio Organoari azpikontratua formalizatzeke agiria aurkeztuko dio. Agiri horretan enpresa edo erakunde azpikontratistaren betebeharrak kontratuko klausulei dagokionez eta horiek ez betetzearen ondorioak zehaztuko dira.

6.- Ordainketak egiteko aintzat hartuko dira SPKLren 216. artikulua eta 15/2010

Legearen hirugarren xedapen iragankorra, uztailaren 5ekoa, merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duena.

7.- Administrazioak egiaztatu ahal izango du kontratuan parte hartzen duten azpikontrastei edo hornitzaileei egin beharreko ordainketak zorrotz egiten dituela kontratistak.

Horretarako, kontratistak Administrazioari bidaliko dio, hala eskatzen duenean, kontratuan parte hartzen duten azpikontrasteen edo hornitzaileen zerrenda xehatua, haien partaidetza hobetzen denean, baita haietako bakoitzaren azpikontratazioaren edo hornitzailearen baldintzak ere, ordainketa-epearekin zuzeneko lotura badute.

Halaber, SPKLren 216. artikulua eta abenduaren 29ko 3/2004 Legeak zehaztutako ordainketa-epeak betetzen dituela egiaztatzeko agiriak aurkeztuko dizkio Administrazioari, hala eskatzen duenean.

38.2.6.- Laneko segurtasun- eta osasun-baldintzak.

1.- Enpresa kontratistak laneko segurtasuneko eta lan-arriskuen prebentzioko xedapenak eta dagokion hitzarmen kolektibotik eratorritako xedapenak bete behar ditu.

2.- Enpresa kontratistak laneko segurtasun-eta higiene-neurriak ezarri behar ditu kontratuari atxikitako langileen segurtasunari eta osasunari eragin diezaioketen arriskuak prebenitzeko.

38.2.7.- Informazioaren segurtasun-baldintzak

1.- Adjudikaziodunak eta datu pertsonalen tratamenduaren edozein fasetan parte hartzen dutenek datuak gorde eta haien isilpekotasuna bermatuko dute, baita erakunde kontratatzailearekin harremana amaitzen denean ere.

2.- Adjudikaziodunak DBLOren eta erakunde kontratatzaileak emandako arauak betez tratatuko ditu datu pertsonalak, kontratua betetzeko ezinbestekoak badira, betiere.

3.- Adjudikaziodunak ezingo ditu datu horiek inoren eskuetan utzi, ezta kontratuan aurreikusten ez diren helburuetarako erabili ere.

4.- Adjudikaziodunak, datu pertsonalen tratamendu-arduraduna den aldetik, neurri teknikoak zein antolamendukoak hartuko ditu, datu pertsonalen segurtasuna bermatu eta gizakiaren esku-hartzearen eta ingurune fisiko edo naturalaren ondoriozko aldaketak, galerak, eta baimenik gabeko prozesamenduak eta atzitzeak ekiditeko.

5.- Adjudikaziodunak kontratuak iraun bitartean behar beste kontrol egiten utziko dio erakunde kontratatzaileari, segurtasun-neurriak egiaztatzeko eta, egoki baderitzo, neurri zuzentzaileak ezartzeko.

6.- Adjudikaziodunak kontratuko prestazioa amaitzen denean datu pertsonalak suntsitu edo erakunde kontratatzaileari edo administrazioak izendatutako tratamendu-arduradunari itzuliko dizkio.

7.- Baldin eta enpresa kontratistak edo azpikontrastak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik erakunde kontratatzailea zigortzen

badute ez-betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

38.3.- Baimenak eta lizentziak kudeatzeko obligazioak

1.- Kontratazio Organoak berak egitea erabaki ezean, enpresa kontratistak behar beste baimen eta lizentzia lortu beharko ditu lanak zuzentasunez gauzatzeko, eta, horrez gain, dagozkion erakunde eskudunen preskripzioak eta baldintzak bete beharko ditu.

2.- Era berean, baimen edo lizentzia horiengatik tasak, fidantzak eta beste gastu batzuk eskatzen direnean, enpresa kontratistak ordaindu edo gordailutu beharko ditu.

38.4.- Kontratistari eska dakizkiokeen gastuak

Kontratatzen kontura izango dira kontratua formalizatzeko eskritura publikoa eta beharrezkoak diren lizentziak eta baimenak.

39.- Zehapenak: berandutzeagatik eta beste arrazoi batzuegatik

1.- SPKLren 192. eta 193. artikulua betez, Kontratazio Organoak enpresa kontratistari zehapenak ezarri ahal izango dizkio arrazoi hauengatik:

- a) Epe osoa edo epe partzialak betetzen berandutzea.
- b) Prestazioak akatsak edukitzea eta hizkuntzaren inguruko baldintzak eta kontratua gauzatzeko beste baldintza bereziak haustea edo akatsez betetzea (SPKLren 192. artikulua).
- c) *Eskaintzak baloratzeko irizpidetzat kontuan hartutako alderdiak ez betetzea edo akatsez betetzea* (SPKLren 122. artikulua).
- d) Soldatak ez ordaintzea, ordainketan berandutzea behin eta berriz edo hitzarmen kolektiboen ondoriozkoak baino soldata-baldintza baxuagoak ezartzea modu larrian eta engainagarrian (SPKLren 201. artikulua).
- e) Azpikontratatzeke betebeharrak, baldintzak eta gainontzeko eskakizunak haustea (SPKLren 215. artikulua).
- f) Laneko Segurtasun eta Osasun Plana epean ez aurkeztea.

2.- Aurreko puntuko ez-betetzei lotutako zehapenen zenbatekoa honako hau izango da:

- a) SPKLren 193. artikuluko 3. atalean aurreikusten den zenbatekoa a) letran jasotako arrazoiarengatik.
- b) Kontratuaren prezioaren % 4 ezarriko da b), c) eta d) letretan jasotako arrazoiarengatik. Edonola ere, Kontratazio Organoak ez-betetzea larria edo oso larria izan dela arrazoitu dezake, eta horrelakoetan, hurrenez hurren, % 7raino eta % 10eraino igo daiteke. Kontuan hartuko da ez-betetzea zenbat aldiz errepikatu den, haren larritasuna baloratzeko.
- c) Azpikontratuaren prezioaren % 50eraino e) letran jasotako arrazoiarengatik.

- d) Euro bat egunean kontratu-prezioaren 5.000 euroko, f) letran jasotako arrazoiarengatik. Hala badagokio, lehenbiziko ziurtagirian deskontatuko da.
- 3.- Enpresa kontratista berandutze-egoeran sartzeko ez da beharrezko Administrazioak aldeztu aurretik agindua ematea.
- 4.- Bitartekoak atxikitze konpromisoa, hizkuntza-baldintzak eta adjudikazioko beste baldintza bereziak hautsi edo akatsez betetzeagatik zehapenak ezarriko dira Kontratazio Organoak alderdi horiek egiaztatzen dituen unean bertan.
- 5.- Eskaintzak baloratzeko irizpidetzat kontuan hartutako alderdiei eragiten dieten ez-betetzeengatik edo akatsez betetzeagatik zehapenak ezarriko dira, betiere harreraren unean Kontratazio Organoak egiaztatzen badu kontratistak, hari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, ez duela kontratua edo eskaintzan aurkeztutako eta adjudikaziorako garrantzitsua den konpromisoetako bat bete. Betetzen ez diren konpromisoak garrantzitsuak izango dira baldin eta kontratistak bete ez duen irizpidean lortutako puntuazioaren % 50 kenduta haren eskaintza onena ez bada.
- 6.- Akatsez betetzeagatik zehapenak ezarrikeren, kontratistak lege-betebeharrak izango ditu akats horiek konpontzeko.
- 7.- Zehapenak ezarrikeren ere, kalte-galerak ordaindu behar dira (SPKLren 196. artikulua).
- 8.- Berandutzagatik zehapenen zenbatekoa faktura edo ziurtagirietatik kenduko da eta, hala dagokionean, bermetik, aipatutako beste dokumentuetatik kentzerik ez dagoenean. Bermearen gainean gauzatzen direnean, *kontratistak birjarri edo handitu egin beharko du*, 15 egun naturaleko epean; osterantzean, kontratua suntsiaraziko da.

40.- Kontratuaren aldaketak

- 1.- Kontratua burutzen denean, Kontratazio Organoak interes publikoko arrazoiengatik baino ezingo dizkio aldaketak egin, SPKLren 205. artikuluan ezarritako kasuetan eta mugekin.
- 2.- Kontratuaren arduradunak kontratua aldatzeko proposamena idatzi eta aldaketa horiek justifikatzeko, deskribatzeko eta baloratzeko dokumentuak erantsiko ditu. Administrazioak aldaketa onartu aurretik, enpresa kontratistari entzunaldia eman beharko dio.
- 3.- Kontratistak nahitaez bete behar ditu Kontratazio Organoak erabakitako kontratu-aldaketak, betiere SPKLren 205. artikuluekin bat badatoz eta aldaketek bere aldetik edo batera kontratuaren hasierako prezioa % 20 garestitzen ez badute (BEZ kanpo). Aldaketa horiek SPKLren 191. artikuluan eta HAKLAOren 102. artikuluan jasotako prozedura bidez izapidetu eta SPKLren 153. artikuluan adierazitako dokumentu administratiboan formalizatu beharko dira, hala dagokionean behin betiko bermea aurrez birdoituta.
- 4.- Kontratistak eta kontratu-arduradunak ezingo dute aldaketarik sartu edo burutu, harik eta behar bezala onartzen ez diren arte. Administrazioak behar bezala baimentzen ez dituen kontratu-aldaketak enpresa kontratistaren erantzukizuna izango dira, eta, hala badagokio, aldatutako zatiak berregin egin beharko ditu, inolako ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

41.-Aurreikusitako gabeko aldaketak

1.- Aldaketak sartu ahal izango dira soilik interes publikoko arrazoiak daudenean eta SPKLren 205.1 artikuluan jasotzen diren balizkoak behar bezala justifikatzen badira. Kasu horretan, balizko horiei erantzuteko ezinbestekoak diren aldaketak baino ez dira sartuko.

2.- SPKLren 205. artikulua aparte utzita, kontratuan ezer aldatu aurretik entzunaldia eman behar zaio zehaztutako teknikoak idatzi dituen pertsonari, 3 egun naturaletan gehienez egoki deritzon gogoetan egiteko, baldin eta zehaztutako horiek obretako kontratua betetzeko Kontratazio Organotik kanpoko hirugarren batek idatzi baditu.

42.- Kontratatari egin beharreko ordainketak

Ordainketa egiteko baldintza hauek bete behar dira:

42.1.- Obra-ziurtagiriak

Kontratatari eskubidea du prestazioaren ordaina jasotzeko, eta, hain zuzen ere, kontratuari, onartutako kontratu-aldaketei eta botere adjudikatzailaren idatzizko aginduei jarraikiz benetan burututako lanak hitzartutako prezioetan kobratzeko.

Gauzatutako obraren zenbatekoa hileko edo klausulan zehaztutako aldizkakotasunarekin igorritako ziurtagirien bidez frogatuko da. Obraren zuzendari fakultatiboak emango ditu ziurtagiriak, hark idatzitako zerrenda baloratuetan oinarrituta.

Ziurtagiri horien ondoriozko ordainketak kontura egindako ordainketatzat joko dira, eta azkeneko neurketak egiten direnean zuzendu eta aldatu ahal izango dira. Ordainketa horiek ez dakarte obraren onarpenik, ezta harrerarik ere.

Ezingo da ziurtagiririk igorri eta, beraz, ezta ordainketarik egin ere, kontratua formalizatzeari, zuzendari egiaztatzeari eta segurtasun- eta osasun-planari dagokionez agiri honen klausuletan ezarritako baldintzak betetzen ez diren arte.

Obraren kontratuan ezarritako epean edo epeetan baino lehenago amaitu ditzake kontratatari, obraren zuzendari fakultatiboak ezegokitzat jotzeko arrazoiak ez baditu, behinik behin. Hala ere, egindako obraren zein emandako ziurtagirien zenbatekoa gorabehera, kontratatari ezingo du jaso dagokion urterako izendatutakoa baino diru-kopuru handiagoa.

Hala ematen diren ziurtagiriek HAKLAOren 152. artikulua zehaztutako egunetik aurrera soilik sortuko dituzte berandutze-interesak.

42.2.- Fakturak erregistratzea eta ordaintzea.

Kontratatari dagokion obra-ziurtagirien fakturak, indarreko araudia betetzeko igorritakoak, aurkeztu behar ditu administrazio-erregistroan. Faktura hogeita hamar (30) egunetan aurkeztu behar du gehienez, obra amaitzen denetik.

Botere adjudikatzailak hogeita hamar (30) egunetan ordaindu beharko du faktura, obra-ziurtagiria onartzen denetik. Berandutzen bada, ordea, aurreko paragrafoan adierazitako epemugatik aurrera berandutze-interesak ordaindu eta kobrantza-kostuengatik kalte-ordainak emango dizkio kontratatari, merkataritza-eragiketetan

berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legeak aurreikusitako baldintzetan.

Edonola ere, kontratistak obra-ziurtagiriak eta fakturak dagokion erregistroan aurkezten dituen hasiko dira interesak sortzen. Kontratistak hogeita hamar (30) egunetan faktura erregistro administratiboan aurkezten ez badu, interesak ez dira sortzen hasiko harik eta faktura dagokion erregistroan aurkeztu eta hogeita hamar (30) egun igaro arte, baldin eta bitartean botere adjudikatzailerak ontzat eman eta, hala badagokio, ordaindu ez badu.

IV. KAPITULUA – KONTRATUA IRAUNGITZEA

43.- Betetzea: harrera, amaierako ziurtagiria, berme-epea, likidazioa eta bermea itzultzea.

Xedea bete dela iritziko zaio, kontratistak kontratua bete duela kontratu-xedea oso-osorik eta botere adjudikatzaileraren adostasunarekin gauzatu duenean, kontratuan ezarritako baldintzak betez, eta obrak botere adjudikatzailerari ematean gauzatuko da.

Botere adjudikatzailerak harreraren edo adostasunaren egintza formala eta positiboa egin beharko du, kontratu-xedea eman edo burutu ondorengo hilabetean.

43.1.- Harrera

SPKLren 210.2 artikuluan ezarritako helburuetarako, kontratuaren xede den obraren harreran izango dira botere adjudikatzailerak bere izenean jarduteko izendatutako fakultatiboa, obra- zuzendaritzen arduraduna, Kontrol Ekonomikoko Bulegoko ordezkaria (hala badagokio) eta kontratista, egoki baderitzo haren fakultatiboak lagunduta.

Obren harrerako akta egingo da eta kide guztiek sinatuko dute, obrak egoera onean daudela eta aurreikusitako preskripzioekin bat datozela ziurtatzeko. Botere adjudikatzailerak izendatutako pertsonak obrak hartutzat emango ditu eta orduan hasiko da berme-epea.

Osterantzean, harrerako aktan jasota utziko da eta zuzendari fakultatiboak ohartaraziko du zer akats antzeman dituen eta agindu zehatzak emango ditu akats horiek adierazitako epean konpontzeko. Epea amaitzerakoan kontratistak akatsak zuzendu ez baditu, epe berri bat eman ahal izango zaio, gehiago luzatzeko aukerarik gabe, edo kontratua baliogabetuko da.

Behar bezala arrazoitutako interes publikoko arrazoiengatik Kontratazio Organoak erabakitzen badu obrak okupatzea edo herritarrentzako zabaltzea, HAKLAOren 168. artikuluan jasotakoaren arabera halakoetan dagozkion efektu eta ondorio berdinak sortuko dira, obrak jasotzeko egintza formalik egiten ez bada ere.

43.2.- Obren amaierako ziurtagiria

Obrak jasotzen direnetik hiru (3) hileko epean gehienez, Kontratazio Organoak

obren amaierako ziurtagiria onartu beharko du eta kontratistari kontratuaren kitapenaren kontura ordainduko zaio. Horretarako, azken neurketa egingo da, eta hasierako balorazioarekin erkatu.

43.3.- Berme-epea

Kontratuak urtebeteko bermea du eta obraren harrera osoa edo partziala egitean hasiko da. Eraikuntza Antolatzeko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen 17. artikuluko erantzukizun zibila aparte utzita, 2.artikuluaren arabera aplikagarria den obretan.

Berme-epean kontratistak ordaindu beharko ditu obrak izan ditzakeen akatsak eta baita mantentze-gastuak ere. Gastu horiek kontratistaren kargura izango dira eta ez du inolako-kalte ordainik jasoko. Alabaina, ezinbesteko kalteak edo hirugarrenek eragindako narriadurak botere adjudikatzailerak ordaindu beharko ditu, nahiz eta kontratistari horiek konpontzeko eska diezaiokeen.

Kontratistak obrak ez mantentzeagatik eta zaintzeagatik arriskuan jar baditzake, eta/edo ez baditu antzemandako akatsak konpontzen, ezta Zuzendari Fakultatiboak eskatuta ere, botere adjudikatzailerak beharrezko lanak gauzatzeko ditu kalteak ekidin eta/edo akatsak konpontzeko, behin betiko bermearen kontura. Behin betiko bermearekin aski ez bada, premiamenduzko administrazio-prozeduraren bidez kobratuko da aldea, diru-bilketako arauetan jasotakoa betez.

Obraren zuzendari fakultatiboak obren egoerari buruzko txosten idatziko du, ofizioz edo kontratistak eskatuta, berme-epea amaitu aurreko hamabost (15) egunen barruan. Txostena aldekoa bada, kontratistak ez du inolako erantzukizunik izango, ezkutuko akatsengatik SPKLren 244. artikuluan aurreikusitako erantzukizuna izan ezik.

Txostena kontrakoa bada, eta antzemandako akatsak obra gauzatzean egindako hutsegiteen ondoriozkoak badira, eta ez eraikitakoaren erabileraren ondoriozkoak, berme-epearen barruan zuzendari fakultatiboak eraikitakoa konpontzeko beharrezko aginduak emango dizkio kontratistari, horretarako epe bat emanaz. Epe horretan obraren mantentze-lanez arduratzen jarraituko du eta ez du berme-epea zabaltzeagatik ezer kobratzeko eskubiderik izango.

43.4.- Kontratuaren kitapena

Obren aldeko txostena egin edo, bestela, antzemandako akatsak konponduta, obraren zuzendari fakultatiboak obren kitapena egitea proposatuko du, hilabeteko (1) epean, berme-epea amaitzen denetik. Horretarako, kontratuan ezarritako baldintza ekonomikoak hartuko ditu oinarritzat.

Kontratistari kitapen-proposamenaren berri emango zaio, hamar (10) eguneko epean ados dagoen edo zer eragozpen dituen adierazteko.

Berme-epea amaitzen denetik bi (2) hileko epean, Kontratazio Organoaren ebazpen bidez kontratuaren kitapena eta saldoa onartuko dira.

Kontratazio Organoak kitapena onartzen duenean, kontratistari zuzendari fakultatiboak igorritako kitapeneko ziurtagiriaren kopia bidaliko zaio.

Botere adjudikatzailerak kitapeneko saldoa ordainduko dio kontratistari, betiere saldo positiboa bada, hogeita hamar (30) eguneko epean, kontratuaren kitapena onartzen denetik, eta kontratistak faktura dagokion erregistroan aurkeztu eta gero.

Kitapeneko saldoa ordaintzean berandutzerik balego, kontratistak berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango du, merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legeak aurreikusitako baldintzetan.

43.5.- Bermea itzultzea

Bermea ez da itzuliko edo kitatuko harik eta berme-epea amaitu eta kontratua behar bezala bete edo kontratistari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua suntsiarazten ez den arte.

Behin kontratuaren kitapena onartuta eta berme-epea igarota bermearen bidez gauzatu beharreko erantzukizuni kez badago, bermea itzuli edo abala edo kauzio-asegurua deuseztatuko da. Kasu horretan, bermea jaso duen autoritateak Irurako Udaleko altxortegiari (dagokionaren arabera) jakinarazi behar dio kontratutik eratorritako betebeharrei dagokionez bermearen bidez gauzatu beharreko erantzukizunetatik libre geratu den.

Bermea itzultzeko erabakia hartu eta bi (2) hileko epean jakinarazi behar zaio interesatuari, berme-epea amaitzen denetik. Epea amaituta, botere adjudikatzaileak, hari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik bermea itzuli ez badu, bermea itzultzeko epemugatik zordundutako diru-kopurua eta horri dagokion interes legala ordaindu beharko dizkio kontratistari.

Kontratuen lagapena egiten denean, lagatzaileak emandako bermea ez da itzuliko edo ezeztatuko, harik eta lagapen-hartzaileak bere bermea formalki eratuta eduki arte.

Kontratua amaitzen denetik urtebeteko epean (1), kontratistari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiengatik harrera formala eta likidazioa egin gabe geratu badira, bermea itzuli edo indargabetu egingo da, luzapen gehiagorik gabe, HAKLAOren 110. artikuluan aipatutako erantzukizunei aurre egin zaiela egiaztatu ondoren.

44.- Kontratua suntsiaraztea

SPKLren 211. eta 306 .artikuluetan jasotzen dira kontratua suntsiarazteko arrazoiak.

1.- Kontratua SPKLren 109. artikuluan eta hurrengoetan xehatutako prozedura betez suntsiaraziko da, prozedura hasten denetik sei hileko epean, eta SPKLren 213. eta 313. artikuluetako ondorioak izango ditu.

2.- Horrez gain, Kontratazio Organoak kontratua suntsiaraz dezake kontratatu den lana gauzatzeko epe osoak edo partzialak betetzen ez badira, epe osoa betetzeko ezintasuna aurrez ikus daitekeenean, betiere Kontratazio Organoak SPKLren 193.3 artikuluan zehaztutako zehapenak ezartzea erabakitzen ez badu.

3.- Kontratua arrazoi hauengatik ere suntsiaraz daiteke:

- a) Kontratua gauzatzean kontratistak kontratuari atxikitako langileei soldatak ez ordaintzea edo ez betetzea hitzarmen kolektiboetan ezarritako lan-baldintzak.

Oro har, enpresa kontratistaren langile-ordezkarriak eskatuta suntsiaraziko da kontratua, baldin eta SPKLren 130. artikulua arabera soldata kobratzen ez duten langileek subrogaziora jotzen ez badute, eta

zordundutako soldaten zenbatekoa kontratuaren prezioaren % 5etik gorakoa ez bada. Kasu horretan, Kontratazio Organoak ofizioz jardungo du eta kontratua suntsiaraztea erabakiko du.

- b) Laneko segurtasun- eta osasun-arloan dituen betebeharreri buruzko agiria larriki haustea.
- c) Kontratuari hasiera batean esleitutako langileekin kontratua gauzatzeko ezintasuna.
- d) SPKLren 294. artikulua c), d) eta f) letretan adierazitako arrazoiak, herri-tarrentzako zuzeneko prestazioak eskaintzen dituzten kontratuen kasuan.

4.- Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, enpresa horietako bat SPKLren 211.1 artikulua a) eta b) ataletan aurreikusitako egoeraren batean badago, Administrazioak ABEEren gainontzeko enpresei kontratu-betebeharrak betetzeko eska diezaike edo kontratua suntsitzea erabaki dezake.

5.- Hala ere, ez-betetzeengatiko zehapenak kontratuko prezioaren % 5aren multiploa direnean, Kontratazio Organoak kontratua suntsitzea edo kontratuari zehapen berriekin jarraipena ematea erabaki dezake.

V. KAPITULUA – INTZIDENTZIAK ETA BERRIKUSPENA

45.- Intzidentziak

45.1.- Kontratazio Organoaren eskumenak

Kontratazio organoak ebatziko ditu administrazio-kontratuak interpretatzean, betetzean eta aldatzean sor litezkeen zalantza guztiak, eta baita ere kontratua betearaztearen ondorioz kontratistari egotzi ahal zaion erantzukizuna deklaratzeko, betearazpena etetean, kontratua suntsiaraztean eta suntsiarazpenak ekar ditzakeen ondorioetan sor litezkeen auziak. Kontratazio Organoaren ebazpenek administrazio-bidea amaituko dute, eta, ebazpen horien kontra, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik zenbatzen hasita.

45.2.- Prozedura

Agiri honetan eta sektore publikoko kontratuen araudian kasu zehatzetarako ezarrita dagoena salbu, botere adjudikatzailearen eta kontratistaren artean kontratua betearaztean eta azkentzean sortzen diren intzidentzia guztiak espediente kontraesankorraren bitartez izapidetuko dira; espediente horren barruan honako jarduketak hauek egingo dira:

- a) Botere adjudikatzailearen proposamena edo kontratistaren eskaera.
- b) Kontratistari entzunaldia ematea bost (5) egun balioduneko epean.
- c) Zuzendari fakultatiboaren txostena.
- d) Aholkularitza juridikoaren txostena, hala badagokio.
- e) Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena, hala badagokio.
- f) Kontratazio Organoaren ebazpen arrazoitua eta kontratistari egindako jakinaraztea.

Interes publikoko arrazoiek hala justifikatzen dutenean edo intzidentzien izaerak hala eskatzen duenean izan ezik, prozedura hau izapidetzeak kontratua geldiaraztea ekarriko du.

46.- Berrikusteko araubidea

Aukera dago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean (112., 121. eta 123. artikulua) eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa erregulatzen duen uztailaren 13ko 29/1988 Legean aurreikusitako errekurso arruntak jartzeko SPKLren 44.1 atalean jasota ez dauden zerbitzu-kontratuei buruzko egintzen aurka.

I. ERANSKINA (1 zk. GUTUN AZALA) ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, Izena

NAN-IFZ

Norberaren izenean

Ordezkatzen dudan enpresaren izenean

Ordezkatuaren sozietate izena:

Ordezkatuaren IFK:

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

Enpresaren titularra/ordezkarria den aldetik, bere erantzukizunpean adierazi du:

1.- Eskaintza aurkeztu duen enpresaren **ordezkarria** dela.

2.- Ordezkatzen duen enpresak Administrazio Publikoarekin **kontratatzeko gaitasuna** duela; izan ere, jarduteko gaitasun osoa du, eta beraz, ez dago SPKLren 71. artikulua aurreikusitako egoeratako batean.

3.- Baimen edo gaikuntza profesionalak, kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta profesionala eta teknikoa edo, hala badagokio, dena-delako sailkapena dituela.

Kaudimena egiaztatzeko

BAI erabiliko ditu beste enpresa baten bitartekoak, haren idatzizko baimena jaso eta gero.

EZ ditu beste enpresa baten bitartekoak erabiliko.

4.- Kontratua eskaintzan aipatutako zehaztapen materialekin eta bitarteko pertsonalekin gauzatzeko konpromisoa hartu du.

5.- Kontratuaren xede den jarduera burutuko duten langileei hitzarmen kolektibo hau aplikatuko zaie:

6.- Adjudikazioduna izanez gero

	BAI	BAIMEN espresa ematen du ordezkatutako enpresak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin zerga-betebeharrak indarrean dituela egiaztatzeko informazioa Administrazio Publiko kontratatzaileari emateko. (*) Aukerarik markatzen ez bada, iritziko zaio EZ dela datuak kontsultatzeko baimenik eman.
	EZ	

7.- Atzerriko enpresa da

BAI eta Espainiako jurisdikzioari eta auzitegiei men egiten die, dagokion atzerriko foru jurisdikzionalari uko eginez.

EZ

8.- Ordezkatutako enpresa:

- BAI Merkataritza Kodearen 42.1. artikulua aurreikusitako egoeratako batean dago.
- EZ dago Merkataritza Kodearen 42.1 artikulua aurreikusitako egoeratako batean.

Erantzuna baiezkoa bada:

- EZ da kontratuaren adjudikaziora aurkeztu banako proposamenak aurkeztu dituzten enprekin, talde berekoak izan zein Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan jasotako kasuren batean egon.

- BAI, kontratuaren adjudikaziora aurkeztu da banako proposamenak aurkeztu dituzten enprekin, talde berekoak izan zein Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan jasotako kasuren batean egon. Zerrenda honetan jaso dira:

IFZ/IFK	Izen soziala

(*) Merkataritzako Kodearen 42.1. artikulua:

“Sozietate-talde batean sozietate nagusiak atal honetan aurreikusitako eran egonkortutako kudeaketa-txostena eta urteko kontuak egin behar ditu.

9.- Eskaintzaren agiri, informazio eta alderdi hauek isilpekotzat jotzen ditu, sekretu teknikoekin edo komertzialekin duten loturagatik:¹

- 1.-
- 2.-
- 3.-
-

Konfidentzialtasuna justifikatuta dagoela arrazoi hauengatik:

- 1.-
- 2.-
- 3.-

¹ Konfidentzialtasun-adierazpena ezingo da zabaldu enpresak aurkeztutako dokumentu guztietara, ezta eskaintza teknikoaren egiaztagiri guztietara ere. Hala egingo balitz edo adierazpen horren hedadura egokia ez balitz, Kontratazio Organoak erabakiko du zer datu eta/edo dokumentu merezi duten isilpeko izatea. Enpresak ez badu isilpekotzat jo inolako datu eta/edo dokumenturik, iritziko zaio emandako datu eta/edo dokumentuak ez direla isilpekoak. Era berean, behin eskaintzak aurkeztu ondoren ezin izango dira isilpeko izendatu aurkeztutako uanean isilpekotzat jo ez ziren datuak.

Tokia eta data:

Enpresaren izena

SINATZEKO LEGE GAITASUNA

*Agiri hau sinatzeko lege-gaitasuna dudala
adierazten dut.*

IZEN ABIZENAK:

SINADURA

NAN:

II. ERANSKINA BALIO JUDIZIO BIDEZ (2 zk. GUTUN AZALA) NEURGARRIAK DIREN IRIZPIDEEN ESKAINTZA EREDUA.

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, Izena

NAN-IFZ

Norberaren izenean

Ordezkatzen dudan enpresaren izenean

Ordezkatuaren sozietate-izena:

Ordezkatuaren IFK:

Prozedura honetatik eratorritako jakinarazpenak helbide elektroniko honetara egingo dira:

EMAILA: _____

Kontratazio-espediterearen baldintzen eta eskakizunen jakinaren gainean egonda proposatu ditu prezio hauek, eta, hala badagokio, formula bidez neurgarriak diren beste eskaintzak.

1.- JUDIZIO BALIO BIDEZ NEURGARRIAK DIREN IRIZPIDEAK. 25 puntu (2 zk. gutun-azalean sartzeko)

MEMORIA TEKNIKOA

Egin beharreko obraren azterketa baloratuko da, bai eta aditu batek obra egiteko proposatutako planteamendua ere. Halaber, baloratuko da memoria ordenatua, sintetikoa, ulergarria eta honako atal hauek argi eta garbi mugatuta izatea:

1.- Proiektuaren dokumentazioaren analisisa (8 puntu)

Proiektuaren dokumentazioa aztertu beharko da, egin beharreko obraren definizioari dagokionez. Proiektuan egon daitezkeen zehaztugabetasunen edo omisioen identifikazioa baloratuko da. Era berean, eraikuntza-xehetasunetan edo bestelako alderdietan hobekuntzak egiteko proposamenak baloratu ahal izango dira, betiere zuzendaritza teknikoak onartzen baditu eta lizitazio-aurrekontua handitzea ez badakarte.

2.- Ezarpen-azterketa (3 puntu)

Obrak gauzatzeko beharrezkoak diren instalazioak eta etxolak ezartzeko proposamenaren egokitasuna baloratuko da. Kontuan hartu beharko dira proposatutako lursailen erabilgarritasuna, dauden instalazioak, obrarako sarbideak eta eraikinean dauden jarduerak. Halaber, arrazoi horiek direla-eta makina obra egiteko egokia den baloratuko da.

3.- Lanen programazioa (5 puntu)

Proiektuaren obrak gauzatzeari dagokionez baloratuko da proposamena. Proposatutako ekipoak (langileak eta makineria), obren zatiak egiteko modua eta jardueren sekuentziak hartuko dira kontuan. Obren jarraipena egiteko proposatutako metodologia ere baloratuko da, zuinketa, exekuzioa, neurketa eta kontrola barne.

a. Proiektua osatzen duten unitateak obra-zati edo -motatan antolatzea, neurketak adierazita. Diagramak ez baditu obra-unitate guztiak barne hartzen, zero puntu emango zaizkio atal honi.

b. Proiektua osatzen duten unitate guztien beharrezko baliabideak zehaztea, hala nola langileak, instalazioak, ekipoak eta materialak, batez besteko errendimenduak adierazita. Diagramak ez baditu obra-unitate guztiak barne hartzen, zero puntu emango zaizkio atal honi.

c. Proiektua osatzen duten unitate guztien GANTT diagrama. Diagramak ez baditu obra-unitate guztiak barne hartzen, zero puntu emango zaizkio atal honi.

d. Proiektua osatzen duten unitate guztien KASU KRITIKOAREN diagrama. Diagramak ez baditu obra-unitate guztiak barne hartzen, zero puntu emango zaizkio atal honi.

4.- Eraginak kontrolatzea eta kudeatzea (4 puntu)

Obraren ingurunea ezagutzea eta obrak bere eragin-eremuaren ohiko funtzionamenduan izan ditzakeen eragozpenak minimizatzeko proposamenak egitea baloratuko da, bereziki gaitu beharreko eraikina kokatuta dagoen higiezinetakoko bizilagunei dagokienez, bai eta eragin horiek zaintzeko, kontrolatzeko eta kudeatzeko proposamenak ere.

Lanak egin bitartean ibilgailuen eta oinezkoen trafikoarentzat izan daitezkeen afekzioak, ebakiak eta desbideratzeak krokisekin labur azaltzea (gehienez A4 orri, alde batetik, Arial 10 letra-mota). Gorabehera horietarako aurreikusitako gehieneko denborak zehaztea. Langileen eta bitartekoen aldetik proposatutako baliabideak.

a. Trafikoaren eraginaren analisia, aurreikusitako gehieneko denborak.

b. Oinezkoen eragina aztertzea.

c. Afekzio pertsonalei, seinalitikoari eta abarrei atxikitako baliabideak edo bitartekoak

5.- Faseak eta zailtasunak (5 puntu)

Azalpen laburra (gehienez 3 A4 orri, alde batetik, 10. letra-mota), eskaintzailearen ustez obran gertatzen diren faseak eta zailtasunak zehaztuz, proiektua behar

bezala gauzatzeko eskaintako bermeak zehaztuta. (Ez da eskatzen partidak eraikitze metodoa).

Oharra: eskatutakoa baino informazio gehiago aurkeztuz gero edo atalen batean orrien gehieneko kopurua gaindituz gero, aurkeztutako eskaintza zero punturekin baloratuko da memoria teknikoaren balorazio-irizpidean.

Udalak lizitazioa esleitu gabe utzi ahal izango du, baldin eta jarduketaren proiektuan kontratatzen den obra egiteko beharrezkoak diren gutxieneko kuantitatiboak eta kualitatiboak agertzen ez badira, eta, beraz, atal honetan gutxienez 12,5 puntu lortzen ez badira; kasu horretan, ez da eskaintza ekonomikoaren baloraziorik egingo.

III. ERANSKINA- ESKAINTZA EKONOMIKOAREN ETA FORMULA BIDEZ NEURGARRIAK DIREN BESTE ELEMENTU BATZUEN EREDUA (3zk. GUTUN AZALA)

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, Izena

NAN-IFZ

Norberaren izenean

Ordezkatzen dudana enpresaren izenean

Ordezkatuaren sozietate-izena:

Ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena

Erreferentzia-kodea

UDAL ERAIKINEAN ZERBITZU ANITZETARAKO ESPAZIOAK 2021KOIR0004
BIRGAITZEA
ETA EGOKITZEKO OBRA BURUTZEA.

Kontratazio-espedientearen baldintzen eta eskakizunen jakinaren gainean egonda proposatu ditu prezio hauek, eta, hala badagokio, formula bidez neurgarriak diren beste eskaintzak.

1.- ESKAINTZA EKONOMIKOA

Hitzematen dut obra honen lanaen kontratua gauzatuko dudala, prezio honen truke:
_____ € (BEZ gabe), gehi _____ €, % _____ BEZari
dagokiona, _____ guztira. Prezioan kontzeptu guztiak daude sartuta, eta,
horien artean, *gastuak*, tasa, zerga-esparrutako *tasak eta arielak eta kontratistaren onura
industrialak*.

2.- FORMULA BIDEZ NEURGARRIAK DIREN BESTE ELEMENTU BATZUK

* Berme-epea luzatzea: 10 puntu gehienez.

Obra jasotzen denetik urtebete beranduago berme-epea zabaltzea baloratuko da:

- Berme-epea 2 urtera luzatzea: 4 puntu
- Berme-epea 3 urtera luzatzea: 6 puntu
- Berme-epea 4 urtera luzatzea: 8 puntu
- Berme-epea 5 urtera luzatzea: 10 puntu

IV. ERANSKINA. ALDI BATERAKO ENPRESA ELKARTEA ERATZEKO KONPROMISO EREDUA.

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1.abizena, 2. abizena, Izena

NAN-IFZ

Norberaren izenean

Ordezkatzen dudan enpresaren izenean

Ordezkatuaren sozietate-izena:

Ordezkatuaren IFK:

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, Izena

NAN-IFZ

Norberaren izenean

Ordezkatzen dudan enpresaren izenean

Ordezkatuaren sozietate-izena:

Ordezkatuaren IFK:

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1.abizena, 2.abizena, Izena

NAN-IFZ

Norberaren izenean

Ordezkatzen dudan enpresaren izenean

Ordezkatuaren sozietate-izena:

Ordezkatuaren IFK:

** Eredua egokitzea adjudikazioduna izan daitekeen aldi baterako enpresa-elkartea eratuko duten enpresa-ordezkarien datuak jasotzeko.*

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena

Erreferentzia-kodea

UDAL ERAIKINEAN ZERBITZU ANITZETARAKO ESPAZIOAK 2021KOIR0004
BIRGAITZEA ETA EGOKITZEKO OBRA BURUTZEA.

ADIERAZI DUTE

1. Kontratuaren adjudikaziodunak izanez gero, beren gain hartuko dutela aldi baterako enpresa-elkartea formalki eratzeko konpromisoa, partaidetza honekin:

Enpresaren izena	%

--	--

2. Enpresa-elkartearen ordezkaria edo ahaldun bakarra izendatu dutela, eskubideak gauzatzeko ahalmen nahikoarekin eta kontratua iraungi arte bertatik eratorritako obligazioak betetzeko:

Izen-abizenak

Tokia eta data:

<i>Enpresaren izena</i>	<i>sinadura</i>
<i>Enpresaren izena</i>	<i>sinadura</i>
<i>Enpresaren izena</i>	<i>sinadura</i>

V. ERANSKINA – ABAL EREDUA

KREDITU ERAKUNDEAREN EDO ELKARREKIKO BERME SOZIJETATEAREN DATUAK

Izen soziala**IFZ****Jakinarazpenetarako eta eskakizunetarako helbidea:****Kalea/Plaza/Etorbidea/...****ZK.****Pisua****Eskua****Herria****PK****Probintzia****AHALDUN (AK)**

Izen-abizenak**IFZ**

Goian adierazitako erakundea, eta haren izenean eta ordean aipatutako pertsonen jardunda, egintza honetan behartzeko behar besteko ahalordeekin, agiri honen beheko aldean aipatutako ahalordeen askiestea kontuan izanda, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean abal-emaile solidariotzat eratu da:

PERTSONA EDO ERAKUNDE ABALDUNAREN DATUAK

Izen-abizenak / Sozietate-izena**IFK / IFZ****Berme-mota**
Behin-behinekoa (SPKLren 106. art.)**Behin betikoa** (SPKLren 107. art.)**Kontratuaren xedea edo abaldunak bere gain hartutako obligazioa****Kontratazio Organoa****Abalaren zenbatekoa (zenbakiz eta letraz)**

Abal-emaileak bere erantzukizunpean aitortu du Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorraren 56.2 artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen dituela. Herri Administrazioen kontratuei buruzko legeria, haren garapeneko arauak eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubidearen martxoaren 27ko 4/2007 Foru Araua betez, abala solidarioki emango da obligaziodun nagusiarekiko, eskusio-onurari berariaz uko eginez eta Kontratazio Organoaren lehenbiziko eskaerarekin ordaintzeko konpromisoa hartuz.

Abala indarrean egongo da Kontratazio Organoak edo haren izenean jarduteko legez gaitutako pertsonak ezeztatzea edo itzultzea erabakitzen duen arte, Herri Administrazioetako Kontratuen Legea eta legeria osagarria betez.

Tokia eta data:**Erakundearen sozietate-izena:****Ahaldunen izena:**

4.- GALDE-ERREGUAK.

Ana Leunda EAJ-PNV taldeko Zinegotziak adierazi du: -ez-ohiko bilkura da eta ez luke egon behar galde-erregurik ez?

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:50tan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.